


2015 MAR. 31

..... (e)an onartua
Aprobado por: Consejo de Administración.

Hernani,

2015 APL
ABR. 09

Hernani,


**ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN
PLEGUA, SASIETAKO MANKOMUNITATEKO
HIRI-HONDAKINEN GARRAIO-ZERBITZUAREN
KONTRATUA ERAENDU BEHAR DUENA**

2015 MAR. 31


(e)lan onartua
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2015 A.P.I.
ABR 09




Idazkarak



AURKIBIDEA

SARRERA	1
I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK	1
1 KONTRATUAREN HELBURUA	2
2 KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA	2
3 ENTITATE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO-ORGANOA	3
4 KONTRATU-EPEAK	3
5 LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA	3
6 ORDAINTZEKO MODUA	4
7 PREZIOAK BERRIKUSTEA	4
8 KONTRATU-DOKUMENTUAK ETA KONTRAESANAREN KLAUSULA OROKORRA	4
9 KONTRATATZAILEAREN PROFILA	5
10 PUBLIZITATEA	5
11 JURISDIKZIOA	5
II. KAPITULUA: KONTRATUA ADJUDIKATZEKO PROZEDURA ETA MODUA	5
12 ADJUDIKAZIO-PROZEDURA ETA -MODUA	5
13 GAITASUN BALDINTZAK	5
14 PROPOSAMENEN AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA	7
15 DOKUMENTAZIOAK BETE BEHARREKO BALDINTZAK	8
16 PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA	9
17 BEHIN-BEHINEKO BERMEAK ERATZEA	14
18 AURKEZTUTAKO ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK	15
19 PROPOSAMEN NEURRIGABEAK EDO ANORMALAK	19
20 PROPOSAMENAK IREKITZEA, ESKAINTZAK SAILKATZEA ETA KONTRATUAREN ADJUDIKAZIOA	20
20.1 . Eskaintzen SAILKAPENA	20



20.2	. ESLEIPENA	21
20.3	. ESLEIPENAREN JAKINARAZPENA	21
20.4	. ESLEIPENAREN EBAZPENA	21
20.5	DOKUMENTAZIOAREN ZAINITZA	22
21	ADJUDIKAZIODUNARI ESKATUTAKO DOKUMENTUAK	22
22	BEHIN BETIKO BERMEA.....	22
23	KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA.....	23
23.1	KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA	23
23.2	FORMALIZAZIO FALTAREN ERAGINAK	24
III. KAPITULUA: ALDERDIEN ESKUBIDEAK ETA OBLIGAZIOAK.....		24
24	KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK	24
24.1	KONTRAPRESTAZIOAK JASOTZEKO ESKUBIDEA.....	24
24.2	KONTRATUA LAGATZEA.....	24
24.3	AZPIKONTRATAZIOA.....	25
25	KONTRATISTAREN OBLIGAZIOAK.....	25
25.1	BEHARREZKO LANGILEAK.....	26
25.2	KONFIDENTZIALTASUNA.....	27
26	KONTRATAZIO-ORGANOAREN ESKUBIDEAK (GHK-REN ADMINISTRAZIO- KONTSEILUA).....	27
26.1	KONTRATUAREN EGOKITZAPENA	27
26.2	EZARRI BEHARREKO ARAUDIAN ONARTUTAKO ESKUBIDEAK.....	28
27	KONTRATAZIO-ORGANOAREN OBLIGAZIOAK	28
IV. KAPITULUA: KONTRATUAREN EXEKUZIOAREN GARAPENA ETA JARRAIPENA.....		28
28	ZERBITZUAK EMATEN HASTEA	28
29	LAN-PROGRAMA.....	28
30	SEGURTASUN ETA OSASUN PLANA LANEAN	29
31	LANEN ZUZENDARITZA.....	29
32	KONTRATISTAREN ORDEZKARIA.....	30

2015 MAR. 31

Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2015 A.P.I.
ABR. 09

Idazkaritza



GHK

Gipuzkoako
Hondakinen
Kudeaketa

GHK

Gipuzkoako
Hondakinen
Kudeaketa

32.1	IZENDAPENA	30
32.2	FUNTZIOAK	30
33	ZERBITZUAK EXEKUTATZEKO ERREGIMENA	30
34	KONTRATISTAREN BALIABIDE MATERIALAK ETA PERTSONALAK.....	31
35	ARRISKUA ETA MENTUARE ZERBITZUAK GAUZATZERAKOAN.....	31
36	ZERBITZUAK GAUZATZERAKOAN DESADOSTASUNAK EBAZTEA.....	31
37	DOKUMENTAZIOA KONTROLATZEA ETA ENTREGATZEA	32
37.1	DOKUMENTAZIOA KONTROLATZEA	32
37.2	DOKUMENTAZIOA ENTREGATZEA	32
38	BERME-EPEA	32
39	BERME-EPEAREN AZKENEKO EGIAZTAGIRIA.....	33
40	KONTRATUA HARTZEA	33
	KAPITULUA DIZIPLINA-ARAUBIDEA	34
41	EZ BETETZEA	34
41.1	EZ-BETETZE OSO LARRIA	34
41.2	EZ-BETETZE LARRIAK	35
41.3	EZ-BETETZE ARINAK	35
42	ZIGORRAK	35
42.1	ZIGORREN ERREGIMENA	35
42.2	ZIGORREN MAILAKETA	36
42.3	ZIGORRAK ETA HERTSAPEN-IZUNAK EGUNERATZEA	36
	VI. KAPITULUA: KONTRATUA AMAITZEA.	36
43	KONTRATUA AMAITZEA.....	36
43.1	KONTRATUA BETETZEA.....	36
43.2	KONTRATUA SUNTSIARAZTEA.....	37
	I. ERANSKINA. ARDURAPEKO ADIERAPENAREN EREDUA.....	39
	II. ERANSKINA PROPOSAMENA GHK-REN SARRERA-ERREGISTROAN	
	ENTREGATZEKO EREDUA	40

III. ERANSKINA. ATZERRIKO ENPRESEN ADIERAZPENA..... 41

IV. ERANSKINA. JAKINARAZPENAK EGITEKO POSTA ELEKTRONIKOAK 42

V. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA..... 43

ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK

2015 MAR. 31

..... (e)an onartua
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2015

API
ABR.

09



Idazkaririk



2015 MAR. 31

Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2015

APK.
ABR. 19



Laazkarak,

SARRERA

Baldintza Administratibo Berezien Plegu (aurrerantzean BABP) honen helburua da Sasietako Mankomunitateko hiri hondakinak garraiatzeko zerbitzua kontratatzeko administrazio-baldintzak ezartzea. Garraioa fluxu desberdinak berezita egingo da, alegia, fluxu bakoitzaren baldintzak mantenduko dira garraioan zehar, eta kargatzerakoan eta garraiatzerakoan fluxu ezberdinak nahasteko aukerarik ez da egongo. Garraiatu beharreko fluxu desberdinak izango dira gainerako zatikia eta biohondakina.

Gainerako zatikia garraiatuko da Sasietako zabortegetik Lapatxeko (Azpeitiko) zabortegetian kokatutako deuseztapen-gunera arte.

Biohondakinari dagokionez, hasiera batean, biohondakinaren tratamendua egiten duten ondoko instalazioetara arte garraiatuko da: Lapatxeko (Azpeitiko) Konpostatze instalaziora, GHKrena dena; Tecnología Industrial del Reciclaje IB, S.L.ren kanpoko instalaziora, Funesen (Nafarroan), dagoena, zeinarekin 2014. urtean Esparru Akordioaren Ondoriozko 2. Kontratua sinatu zen, 2013an formalizatu zena, biohondakinaren tratamendua egiteko eta konposta eskuratzeko; eta HTN Biogas enpresaren instalaziora, Caparroso udalerrian (Nafarroan) dagoena. Fluxu hori azken horretara eramaten da bildutako biohondakin kopurua aipatu 2. Ondoriozko Kontratuan ezarritako kopurua baino handiagoa bada.

Egun, Bergarako Epele Konpostatze Instalazioa eraikuntza fasean dago, eta azpiegitura hori 2015eko uztailan martxan jarriko dela aurreikusten da. Une horretan, biohondakina instalazio horretara eramango da tratatua izan dadin.

Gipuzkoako Hondakinen Kongsortzioa, **GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA, S.A.U.** (aurrerantzean GHK) pertsona bakarreko sozietatearen bidez, hiri-hondakin solidoak tratatzeko eta deuseztatze, zein hondakin horiek dagokien tokira garraiatzeko erakunde eskumenduna da. Ondorioz, horren lizitazioa egitea dagokio.

Kontratuak irauten duen bitartean, konpostatzeko beste instalazio batzuk sor daitezke edo sortzeko beharra ager daiteke. Hala ere, horrek ez du inola ere aldatuko kontratu hau.

I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

Plegu honetan jasotzen dira Sasietako Mankomunitateen hondakinak garraiatzeko zerbitzuaren kontratazio-prozedura eraenduko dituzten administrazio-klausula partikularrak. Kontratazio-prozedura hori GHK merkataritza-sozietateak adjudikatuko du, Gipuzkoako Hondakinen Kongsortzioaren kontura eta horren aginduz.

1 KONTRATUAREN HELBURUA

Kontratu honen helburua da hiri-hondakinak Sasietako Mankomunitatek garraiatzea, biohondakina eta gainerako zatikia desberdinduta. Egin beharreko zerbitzua, gainerako zatikiari zein biohondakinari dagokionez, Xedapen Teknikoen Pleguaren 2. Klausulan deskribatutakoa da.

Gainerako zatikiaren garraioa kontratu honen xede izango da, Sasietako Mankomunitateak aurreikusitako Sasietako zabortegiaren iragazgaizte eta egokitzapen lanak gauzatzen diren bitartean. Lan horiek bukatzen direnean (gutxi gorabehera 2015eko azaroan bukatuko direla aurreikusten da), zabortegia berriz ere irekiko da, eta ondorioz, gainerako zatikia Sasietako Zabortegi bertan geratuko da. Une horretan, hondakin hori ez litzateke gehiago garraiatuko.

Gainerako zatikiari dagokionez, hondakinak garraiatuko dira Lapatxeko (Azpeitiko) zabortegian kokatutako deuseztapen-guneetara arte; eta biohondakinaren garraioari dagokionez, GHKren jabegoko Lapatxeko (Azpeitiko) Konpostatze instalazioetara arte, eta Funesko (Nafarroako) Tecnología Industrial de Reciclaje S.L.ren eta Caparrosoko (Nafarroa) HTN Biogásen kanpoko instalazioetara arte, hondakin-fluxu bientzat esleitzen diren norakoen arabera. Enpresak GHKren beharretara eta, GHK-k adierazten duenaren arabera, balizko norako horietara egokitu beharko dira, GHKri kostu gehigarriak sortu gabe.

2 KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratu honek izaera pribatua du, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duenaren (aurrerantzean SPKLTB), 20.1. artikuluan xedatutakoari jarraiki; eta Baldintza Administratibo Berezien Plegu honetan (aurrerantzean, BABPn edo Pleguan) eta haren eranskin guztietan, Baldintza Teknikoen Pleguan zein kontratuaren gainerako dokumentuetan xedatutakoaren arabera eraenduko da, 8. Klausulan ezarritako baldintzei jarraiki.

Prestatzeari, adjudikatzeari, ondorioei eta iraungitzeari dagokionez, adierazi den moduan, kontratua arautuko dute Baldintza Administratibo Berezien Plegu honek, Baldintza Teknikoen Pleguak, GHKren Kontratazioko Barne Arauek eta, horietan aurreikusten ez den gaitan, zuzenbide pribatuko arauak.


Halaber, Sektore Publikoko Kontratazioei buruzko Legearen Testu Bateratua eta Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Araudi Orokorra (aurrerantzean, HAKLAO) aplikagarriak izango dira Plegu honek araudi horiei zuzenean erreferentzia egiten dienean.

2015 MAR. 31

..... (e)an onartua
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2015 A.P.I.
ABR. 09

Idazkaraiak


Kontratuaren edozein baldintza, edota adostutakoa egikaritzera ezarri daitezkeen beste edozein kontratuzko dokumentu ez ezagutzeak ez du esan nahiko esleipendunak horiek bete behar ez dituenik.

3 ENTITATE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO-ORGANOA

Entitate kontratatzailea GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA S.A.U da (aurrerantzean GHK).

Kontratu honen kontratazio-organoa GHKren Administrazio Kontseilua da, zeinak, dagokionean, eta aplikatu beharreko zuzenbide pribatuko arauen arabera, jarduketa zehatzak gauzatzeko egokiak deritzon pertsonak berariaz ahaldundu ahalko dituen.

4 KONTRATU-EPEAK

Kontratua gauzatzeko epea ZORTZI (8) HILEKOA izango da, kontratua formalizatzen denetik aurrera.

5 LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratu honen lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren kopurua da **EHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI EURO LAUROGEITA HEMERETZI ZENTIMOREKIN (199.999,99€)** (BEZ gabe), sei hilabeteri gehi luzapeneko beste sei hilabeteri dagokiena.

Lizitazio honen oinarrizko aurrekontua izango da 1, 2, 3 eta 4 prezioetan balioetsitako kopuruak lizitazioaren aleko prezio maximoarekin biderkatzearen emaitza, plegu honen 18. klausularen hirugarren irizpidean jasotako tauletan ezartzen den bezala.

Kontratu honen prezioa adjudikaziodunaren eskaintza ekonomikoan zehaztutakoa izango da. Edonola ere, kontratuaren prezioak ezingo du lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (BEZ gabe) gainditu. Zenbateko hori gainditzen duten proposamenak baztertu egingo dira.

Kontratuko prezioaren barne egongo dira aplikagarriak diren zerga, tasa eta kanon guztiak, baita kontratudunak Plegu honetan eta kontratuaren gainerako dokumentuetan aurreikusitako obligazioak betetzearen ondorioz sortutako gastu guztiak ere.

Lizitzaileek, garraiatutako tonako prezioaren eskaintza egiterakoan, gastu kontzeptu guztiak eta etekin industrialak ere kontuan hartuko dituzte prezioan, ezarri beharreko BEZa izan ezik, hori modu berezian zehaztuko baita.

2015 MAR. 31

(e)an onartua
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2015 A.P.I.
ABR. 09



Idazkariak

Eskaini beharreko aleko prezioaren lizitazio mota ezin izango da izan ondoko taula honetan xehatzen den aleko prezio maximo bakoitzaren kopurua, BEZ kanpo, baino handiagoa:

GAINERAKO ZATIKIA	BIOHONDAKINA		
<u>1. PREZIOA</u> LAPATX	<u>2. PREZIOA</u> LAPATX	<u>3. PREZIOA</u> FUNES	<u>4. PREZIOA</u> CAPARROSO
9 €/Tn	9€/tn	14,30€/Tn	14,30€/Tn

6 ORDAINTZEKO MODUA.

Prezioa hileror ordainduko da, garraiatutako tona kopuruaren arabera.

Hilabete bakoitzaren amaieran, eta hurrengo hilabeteko lehenengo 7 lanegunen barne, adjudikaziodunak bidaliko du, GHK-k eskatutako protokoloa betetzeko, aurreko hilabetean garraiatutako tonei dagokien faktura eta emandako zerbitzuen inguruko gainerako dokumentazio xehatua. Kontuan hartu beharreko tonak izango dira zabortegiko edo tratamendu-instalazioko sarrerako baskularen tiketen bidez justifikatzen direnak, zeinak adjudikaziodunak erantsiko dituen fakturarekin batera.

Ordainketa 60 egunera egingo da, transferentzia bidez, GHK-k ados dagoela adierazi ondoren igorritako fakturarekin.

7 PREZIOAK BERRIKUSTEA

Kontratua gauzatuko da kontratistaren arriskuz eta menturaz, eta prezioak berrikusteko aukerarik ez da izango.

8 KONTRATU-DOKUMENTUAK ETA KONTRAESANAREN KLAUSULA OROKORRA

Kontratu izaera izango dute eta, beraz, alderdientzat nahitaez betebeharrekoak izango dira, jarraian zehazten diren dokumentuak eta dagozkien eranskinak.

1. Baldintza Administratibo Berezien Plegu hau.
2. Baldintza Teknikoen Plegua, Administrazio Klausula Partikularren Pleguarekin kontraesanean ez dagoen guztian.

3. Kontratua formalizatzeko dokumentua eta gero sinatuko diren kontratua garatzeko dokumentuak.
4. Adjudikaziodunak aurkeztutako eskaintza.

Adjudikaziodunak dokumentu horiek sinatu beharko ditu, adostasuna adierazteko, kontratua formalizatzeko ekitaldian.

Dokumentuen terminoetan kontraesanen bat badago, elkarrekin lotura duten dokumentuak interpretatzeko kontuan hartuko da klausula honetan zein ordenatan zerrendatzen diren, eta lehentasuna izango du zerrendan besteen aurretik agertzen denak.

9 KONTRATATZAILEAREN PROFILA

Gardentasuna eta kontratu-jarduerari buruzko informaziorako sarbide publikoa segurtatzeko, hargatik eragotzi gabe SPKLTBk agintzen duen kasuetan gaitu beharreko beste publizitate-bide batzuen erabilera, Interneteko atarian ikusi ahal izango dute kontratatzailearen profila lizitatzailleek: <http://www.ghk.eus>

10 PUBLIZITATEA

Lizitazio hau eta kontratuaren esleipena GHKren kontratatzailearen profilean argitaratuko dira.

11 JURISDIKZIOA

Jurisdikzio zibila izango da eskuduna kontratuaren prestaketa, esleipena, kontratuaren ondorioei, betetzeari eta amaitzeari buruz alderdien artean sortzen diren auziak ebazteko, SPKLTBaren 21.2 artikulua jasotzen duen moduan.

II. KAPITULUA: KONTRATUA ADJUDIKATZEKO PROZEDURA ETA MODUA

12 ADJUDIKAZIO-PROZEDURA ETA -MODUA

Kontratu hau publizitadedun prozedura negoziatu bidez esleituko da, eskaintza tekniko eta ekonomikoki onuragarriena aurkezten duen lizitatzailleari.

13 GAITASUN BALDINTZAK

1. GHKrekin kontratatu ahal izango dute, bakarka edo taldean, jarduteko gaitasun osoa duten eta kontratatzeke debekuan erori gabe dauden Espainiako edo atzerriko pertsona fisikoek edo juridikoek.

2015 MAR. 31

(e)an onartua

Aprobado por Consejo de Administración

Hernani,

2015 A.P.I.
A.B.R. 09

Idazkaririk



Ezin izango dira lizitazioan lehiatu kontratuaren espezifikazio teknikoak edo prestazio-dokumentuak sortzen parte hartu duten enpresak, beti ere, parte-hartze horrek lehia libreari mugak jartzen baldin badizkio edo tratu pribilegiatua izan baldin badezake gainerako enpresa lizitatzailleen aurrean.

2. Gainera, kontratuaren xede den jarduera edo prestazioa egiteko behar den gaikuntza profesionala edo enpresariala izan beharko dute enpresaburuek, halakorik bada.

Pertsona juridikoak kontratuaren adjudikaziodun izan ahal izateko, nahitaezkoa da kontratuan eman beharreko prestazioak pertsona juridikoaren xede, objektu edo jardueraren esparruan sartzea, estatutuetan edo funtzio erregeletan ezarritakoaren arabera.

3. GHKrekin kontratatzeko gaitasuna izango dute, edozein kasutan ere, Espainiatik kanpokoak izan arren Europar Batasuneko estatu kideetakoak diren enpresek, baldin eta, beren Estatuko legediak xedatutakoaren arabera, eman beharreko prestazioa emateko gaituak badaude.

Enpresa horiei dagokien Estatuko legediak, kasuan kasuko zerbitzua eman ahal izateko, baimen berezi bat izatea edota antolakuntza jakin bati atxikita egotea exijitzen badu, baldintza hori betetzen dutela frogatu beharko dute.

Europar Batasuneko kide ez diren estatuetakoko pertsona fisiko edo juridikoek Espainiako Diplomazia Misio Iraunkorraren txosten baten bitartez egiaztatu beharko dute enpresaren jatorrizko estatuak aukera ematen diela Espainiako enpresei hango administrazioarekin eta SPKLTBko 3. artikuluan aipatutako sektore publikoko antzeko ente, organismo edo entitateekin egiten diren kontratazioetan funtsean modu bertsuan parte hartzeko, Diplomaziako Misio Iraunkorraren txostena enpresak aurkeztu beharreko agiriekin batera aurkeztuz.


4. GHKrekin kontratatu ahal izango dute kontratu hori gauzatzeko behin-behinean osatzen diren enpresarien batasunak. ABEEko kideek kaudimen-baldintzak bete beharko dituzte Plegu honen 16.3 klausulan adierazitako baldintzetan, eta denak izango dira kontratua betetzeko erantzule solidarioak kontratuak irauten duen denbora guztian.

Aldi baterako enpresen elkartea ez da eskritura publikoan formalizatu beharrik izango, harik eta kontratua beraien alde adjudikatu arte, eta, edozein kasutan ere, SPKLTBaren 59. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da. Hala ere, enpresari horiek lizitazio eta kontratu honen ondorioz sortzen diren obligazio guztiak GHKren aurrean betetzeko obligazio solidarioa daukate eskaintza aurkezten duten unetik eta kontratua iraungi arte, eta pertsona bat izendatu beharko dute lizitazioan zehar eta kontratuak irauten duen bitartean ahalmen nahikoak dituen ordezkari eta ahaldun bakar bezala jardun dezan, kontratuak iraungi arte sortzen diren eskubideak gauzatzeko eta obligazioak betetzeko.

2015 MAR. 3 1

(e)an onartua
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani, 2015 A.P.I.
ABR. 09



Idazkaririk

5. Lizitazioan lehiatzen diren enpresa guztiek Plegu honekin batera erantsi den I.Eranskina aurkeztu beharko dute beteta.

14 PROPOSAMENEN AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA.

1. Proposamenak GHKren bulegoetan aurkeztuko dira, Hernaniko Ibaiondo industrialdeko 25. zk.ko 3. solairuan, **2015EKO APIRILAREN 27KO ordu batak (13:00) arte.**

Kontratazio espedientea GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETAREN bulegoetan aztergai egongo da (Hernaniko Ibaiondo Industrialdea, 27-3º), 08:00etatik 15:00etara bitartean, egun baliodun guztietan, lizitazio honen iragarkia GHKren Kontratatzailearen Profilean argitaratzen den egunaren biharamunetik eskaintzak aurkezteko epea amaitzen den arte.

2. Lizitazio hau kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da, eta informazio hori guztia webgune honetan egongo da ikusgai: <http://www.ghk.eus>. Leku berean egongo da administrazio klausulen plegua eta xedapen teknikoen plegua ere.
3. Dokumentazioa postaz bidaltzen denean, enpresaburuak justifikatu beharko du zein egun eta ordutan egin duen bidalketa Posta bulegoan, eta egun horretan bertan kontratazio-organoari jakitera eman beharko dio eskaintza bidali duela telex, fax edo telegrama bidez. **Bai dokumentazioa bidaltzea eta bai bidalketa kontratazio-organoari egin zaiola iragartzea,** iragarkian adierazitako aurkezpen-epea amaitzeko **data eta ordua igaro aurretik egin beharko da.**
- Eskaintzaren aurkezpena posta elektronikoz ere iragarri ahal izango da, baina kasu horretan, iragarpenaren bidalketa baliozkoa izan dadin, jasota egon beharko du mezua bidali eta jaso dela, baita bidaltze- eta jasotze-datak eta komunikazioen eduki osoa ere, eta igorlea eta hartzailea era fede-emailan identifikatu behar dira. Kasu horretan, kopia inprimatuko da, eta kopia hori erregistratu egingo da eta espedienteari erantsiko zaio.
 - Bi baldintza horiek betetzen ez badira, eta GHK-k iragarkian adierazitako eguna eta ordua bete ondoren jasotzen badu proposamena, ez da onartuko. Hala ere, adierazitako datatik hamar (10) egun natural igarotzen badira dokumentazioa jaso gabe, dokumentazio hori inola ere ez da onartuko APKLEOko 80.4 artikuluari jarraiki.
4. Parte hartzeko eskaera kontratazio-organoak adierazitako bulegoetan aurkezten denean, kontratazio-organoak eskaera hori erregistratuko du eta zigitatutako kopia bat itzuliko dio lizitatzailerari aurkeztu izanaren ordezkagiri gisa. Kopia horretan azalduko dira lizitatzaileraren izena, kontratuaren objektuaren izendapena eta

proposamena aurkeztu den eguna eta ordua, **II. Eranskinean** aurkeztutako ereduaren arabera.

15 DOKUMENTAZIOAK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Lizitatuzaileek aurkezten duten dokumentazioak betekizun eta baldintza hauek bete beharko ditu:

1. Proposamenak aurkezten direnean ulertzen da Plegu honen eta kontratu izaera duten gainerako dokumentuen klausulak baldintzarik gabe, salbuespenik gabe, onartzen dituela lizitatuzaileak, baita zerbitzu publikoarekin kontratatzeko eskatzen diren baldintza guztietako bakoitza jasotzen duenaren ardurapeko adierazpena egin duela ere. Hortaz, baldintza tekniko, ekonomiko, operazional guztiak edo emandako dokumentazioan eta bere eranskinetan aurreikusitako beste edozein motatako baldintza guztiak bete beharko dituzte eskaintzek.

Lizitatuzaileek aurkeztutako edozein dokumentutan salbuespenik egonez gero, informazio hori ez dela jarri ulertuko da, eta kontratua gauzatu beharko da kontratazio-organoak igorritako dokumentazioaren baldintzen arabera, zein lizitazioarentzako oinarria den.

2. Lizitatuzaile bakoitzak eskaintza bakarra aurkeztu ahal izango du; ez da aldaketarik onartuko. Ezingo du aurkeztu eskaintzarik beste enpresariekin alde baterako elkartean bakarka eskaintzarik aurkeztu badu eta ezingo du aldi baterako elkarre batean baino gehiagotan azaldu. Arau hauen ez betetzea berak sinatutako eskaintza guztiak ez onartzea ekarriko du.
3. Proposamenak Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen arteko edozein hizkuntzatan aurkeztuko dira.
4. Informazio guztia paperean inprimatuta eta euskarri informatikoan (Word, Presto 8.8, Excel, mpp, pdf, dwg...fitxategietan) eman behar da, Plegu honetan adierazitako baldintzetan, halakorik bada. Bi euskarrietan emandako datuak edo informazioak bat ez badatoz, paperean aurkeztutako dokumentazioko edukia gailenduko da.

Eskaintzak makinaz idatzita, edo beste modu batean mekanikoki edo informatikoki inprimatuta egongo dira, eta ez da onartuko eskuz idatzitako dokumenturik, ezta eskaintza baloratu ahal izateko baldintzak argi eta garbi ezagutzea eragozten duten hutsak, erroreak edo zuzenketak dituenik ere. Era berean, ez da onartuko APKLEOko 84. artikuluan ezarritako kasuren batean dagoen proposamenik.

Zehazki, eskaintza ekonomikoa plegu honekin batera ematen den dokumentu informatikoan aurkeztu beharko da, dokumentu horren formatua batere aldatu gabe.

5. Ez dira onartuko APKLEOko 84. artikuluan ezarritako kasuetan dauden proposamenak, eta, beraz, atzera botako dira aztertu eta onartutako dokumentazioarekin bat ez datozen proposamenak, pleguetan ezarritako eredia funtsean aldatzen dutenak, zenbatekoan errore nabarmena dutenak edo, lizitatzailleak berak aitortuta, bideraezin egiten dituen erroreak edo funsgabetasunak dituenak.
6. Prozeduran aurkezten diren eskaintzak prestatzeko dokumentazioa lantzearen kostu osoa lizitatzaileren konturakoa izango da, eta ezingo dute inolako konpentsaziorik erreklamatu adjudikazioa ematen ez bazaie.
7. Eskatutako dokumentazio guztia kopia soil edo konpultsatutako kopia bezala aurkeztuko da, ardurapeko adierazpenak izan ezik. Lehen postuan sailkatu denak kopia soila ematen badu, GHK-k eskatuko dio dokumentazio originala edo Administrazioak edo notarioak behar bezala konpultsatua edo legeztatua eman diezaion.

16 PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA.

Lizitazio honetan parte hartzeko, enpresa lizitatzailleek **gutun-azal itxi bat** aurkeztu beharko dute, GHKren bulegoetan, eta plegu honen 14. klausulan ezarritako epe barruan, ondoren adieraziko den dokumentazioarekin. Gutun-azalean inskripzio hau agertu beharko da: **“SASITAKO MANKOMUNITATEAREN HIRI-HONDAKINAK GARRAIATZEKO ZERBITZU-KONTRATUAREN LIZITAZIOA”**.

Gutun azalean jasoko da enpresaren izena, proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak eta aurkezpenaren izaera; gutun-azalak sinaturik egon beharko du.

Gutun-azalak ondorengo dokumentazioa jaso beharko du:

- a) **Gutun-azalean jasotako dokumentuen zerrenda.**
- b) **Parte hartze eskaera, II. Eranskinaren arabera.**
- c) **Enpresariaren, eta dagokionean, bere ordezkariaren jarduteko gaitasuna egiaztatzen duten dokumentuak,** HAKLEOko 21. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Jarduteko gaitasuna honela egiaztatuko da:

- Lizitatzaillea pertsona juridikoa denean, aurkeztuko dira eratzte-eskritura edo eratzte-dokumentua, eta jarduera arautzen duten arauak jasotzen dituzten Estatutuak edo sortze-ekintza, dagokion Erregistro publikoan behar bezala inskribatu ondoren, hala badagokio, pertsona juridiko motaren arabera.

2015 MAR. 31

(e)an onartua
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2015

API.
ABF.

Idazkaririk



- Aldi baterako enpresen elkarteak sortzea aurreikusten duten pertsona fisikoek edo juridikoek proposamena sinatzen badute, dokumentu pribatu bat jasoko da, non adieraziko den, adjudikaziodunak izanez gero, elkarrekin lehiatzeko borondatea eta kontratua gauzatzeko ABEEa eratzeko konpromisoa; enpresa bakoitzari dagokion parte-hartze portzentajea, eta non kontratuaren ondorioz sortutako eskubideak gauzatzeko eta obligazioak betetzeko ahalmenak dituen ordezkaria edo ahaldun bakarra izendatuko den, kontratuak iraungi arte. Idatzia sinatu beharko dute lehiatzen diren enpresek zein aipatu ahaldunak. Elkarrekin lehiatzen den enpresatalde batekoak direnek eskaintza aurkeztu badute, ezin izango dute banakako proposamenik aurkeztu, ezta aldi baterako beste elkarte batean sartu edo beste enpresa batzuekin batera lehiatu. Debeku hori betetzen ez bada lizitatzaileraren arau-hauleak sinatutako eskaintza guztiak baztertuko dira.
 - Lizitatzailerak bere izenean jarduten duenean; horretarako, parte-hartzailearen Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia edo dagokion egoeraren baliokidea aurkeztuko du.
 - Beste baten izenean agertzen edo proposamenak sinatzen dituztenek, NANaren kopia edo horren ordezkari dokumentua aurkeztuko dute, baita horretarako duten ahalordea nahikoa dela egiaztatzen duen dokumentua ere. Enpresa pertsona juridikoa izango balitz, boterea Merkataritza Erregistroan jasota agertu beharko da, horrela eskatzen bada, Merkataritza Erregistroko Erregelamenduaren 94. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
 - Enpresaburuak espainiarrak ez badira baina bai Europar Batasuneko estatu batekoak, kokatuta dauden estatuko legeriak agintzen duen Erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, edo zinpeko deklarazio bat edo ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, aplikatzekoak diren xedapen komunitarioen arabera.
 - Gainerako enpresari atzeritarrek Espainiak haien estatuan duen Diplomaziako Misioko Iraunkorrek edo enpresaren egoitzari dagokion Kontsularen Bulegoak egindako txostenaren bidez egiaztatu beharko dute jarduteko gaitasuna. Txosten horrekin batera justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorrizko Estatuak aukera ematen diela Espainiako enpresei hango administrazioarekin eta SPKLTBko 3. artikuluan aipatutako sektore publikoko ente, organismo edo entitateekin egiten diren kontratazioetan funtsean modu bertsuan parte hartzeko.
- d) **Berriazko eta ardurapeko adierazpena**, I. Eranskinean jasota dagoen ereduaren arabera. Adierazpen horretan deklaratu beharko du **ez duela kontratatzeko debekurik** SPKLTBko 60. artikuluan ezarritakoaren arabera, bereziki aipatuz artikuluko honetako 1. ataleko c) letrak dioena, hau da, ez duela zehapen irmorik jaso laneko segurtasun eta osasunaren arloan arau-hauste larria egiteagatik; eta beteta dituela zergen eta gizarte segurantzaren arloko obligazioak, APKLEO erregelamenduko 13. eta 14. artikuluetan zehazten diren arabera.



e) **Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (JEZen)**, kontratuaren objektuari dagokion epigrafean alta emanda dagoela egiaztatzeko agiria; horretarako, **alta aurkeztuko da**, une horretako ekitaldiko bada, edo azkeneko JEZ ordainagiria aurkeztuko da, gainerako kasuetan. Edozein kasutan ere, zerga horren matrikulan ez duela baja eman deklaratzeko duen ardurapeko adierazpena aurkeztuko da (l. Eranskina).

f) Gainera, entitate lizitatuak jarraian adierazten diren kaudimen-baldintzak bete beharko ditu lehiaketa publikoan parte hartu ahal izateko:

f.1.) Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa SPKLTBko 75. artikularen arabera egiaztatuko da, dokumentu hauek aurkeztuta:

1. Urteko negozio-bolumenaren aitortzea, eta, hala badagokio, kontratuak aipatzen duen urteko negozio-bolumenaren aitortzea lizitazioaren iragarpenean eta kontratuaren pleguetan eskatzen den zenbateko berdinarekin edo handiagoarekin.

2. Arrisku profesionalen kalte-ordaineko aseguru baten (Erantzukizun zibila) egiaztagiria lizitazioaren iragarpenean eta kontratuaren pleguetan eskatzen den zenbateko berdinarekin edo handiagoarekin.

3. Enpresa esleipendunak Ingurumen Erantzukizuneko aseguru bat kontratatu duela egiaztatu beharko du, zeinak ezbeharrengatik, gutxienez, 199.999,99€ (EHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI EURO LAUROGEITA HEMERETZI ZENTIMOREKIN) aseguraturiko dituen, eta urte bakoitzagatik 199.999,99€ (EHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI EURO LAUROGEITA HEMERETZI ZENTIMOREKIN). Ingurumen Erantzukizuneko poliza horrek jasoko ditu kontratatutako zerbitzuaren eta Plegu honetan jaso diren alderdi guztiak. Hurrela, zerbitzua gauzatzekoan, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa S.A. Uri edo hirugarrenei sor daitezkeen kalte-ordainen erantzukizun guztia hartuko du bere gain esleipendunak.

Justifikatutako arrazoiren batengatik lizitatuak edo taldea osatzen duten lizitatuak batek ezin izango balu eskatutako erreferentziak aurkeztu, kontratazio-organoak baimena eman ahal dio bere ekonomia- eta finantza-kaudimena egiaztatu dezan egokia deritzon beste edozein dokumenturen bidez.

f.2.) **Kaudimen tekniko eta profesionala** SPKLTBko 78. artikularen arabera egiaztatuko da, dokumentu hauek aurkeztuta:

1. Azken hiru urtetan egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, horien zenbatekoa, datak eta hartzaile publikoa edo pribatua barne. Egindako

zerbitzuak edo lanak egiaztatuko dira organo eskumendunak igorritako edo ikus-onetsitako egiaztagirien bidez, hartzailea sektore publikoko entitate bat denean; hartzailea subjektu pribatu bat denean, horrek igorritako egiaztagiri baten bidez, edo horrelako egiaztagiririk ez badago, enpresariaren aitortzen baten bidez. Edozein kasutan ere, agintaritza eskumendunak kontratazio-organoari zuzenean emango dio egiaztagiri horien berri.

2. Kontratuan parte hartzen duten eta enpresan integratuta dauden edo ez dauden langile teknikoak edo unitate teknikoak adieraztea.
3. Enpresariaren eta enpresako zuzendaritzako langileen, eta, bereziki, kontratua gauzatzeko erantzukizuna duten langileen titulazio akademikoak eta profesionalak.
4. Egiaztatu beharko da langile guztiek gutxienez 2 urteko esperientzia dutela eskaintzan proposatutako baliabide mekaniko bertsuekin salgaiak garraiatzen.
5. Lanak egiteko edo zerbitzuak behar bezala emateko zer makineria, material eta ekipo tekniko erabiliko diren jasotzen duen adierazpena. Lan eta zerbitzu horien dokumentazioa erantsiko da, BTParen (Baldintza Teknikoen Pleguaren) 4.1. klausulak adierazten duenaren arabera.
6. Enpresariak kontratuaren zein zati azpikontratatzeko asmoa duen adieraztea.
7. Xedapen Teknikoen Pleguaren 4. atalean zehaztutako baldintza teknikoak bete direla egiaztatzen duten dokumentuak.
8. Lizitzaileek egiaztatu beharko dute garraio publikoko administrazio-baimena dutela, martxoaren 20ko FOM/734/2007 Aginduak zehazten duenaren arabera.
9. Lizitzaileek egiaztatu beharko dute Espainiako Estatutik kanpo egin behar diren garraioetarako Europar Batasunaren barruko lizentzia dutela, Espainian Sustapen Ministerioak ematen duena.

g) Proposamena **Aldi Baterako Enpresa Elkarte** batek aurkezten badu, enpresa kide bakoitzak egiaztatu behar ditu bere gaitasuna eta kaudimena. Kasu horretan, eta horrela dagokionean, elkarte osatzen duten taldeetako bakoitzarentzat egiaztatutako ezaugarriak, edo ABEEko kideen banakako sailkapenak pilatuko dira, plegu honetan eskatzen den kaudimen/sailkapen osoa egiaztatu ahal izateko. Era berean, enpresa horien guztien legezko ordezkariak sinatutako dokumentu bat aurkeztu beharko da. Dokumentu horretan jarri beharko dira sinatzen duten enpresariaren izenak eta baldintzak, esleipendun izanez gero aldi baterako enpresa-elkarte formalki osatzeko

2015 MAR. 31

Aprobado por Consejo de Administración. (e)Jan onartua

Hernani,

2015 A.P.I.
ABR. 09



Idazkaritza

konpromisoa hartzen duten agiria, eta elkarte horretan bakoitzak duen partaidetza, baita kontratuak irauten duen denboran administrazioaren aurrean enpresa horien guztien ordezkarietza osoa izango duen pertsonaren izendapena ere.

Sailkapena eskatu behar den kasuetan, Aldi Baterako Enpresa Elkartean Espainiako estatuko enpresaburuek, Europar Batasuneko estatu kide batekoak ez diren enpresaburuek eta Europar Batasuneko estatu kide batekoak diren atzeritarrek parte hartzen badute, lehenengo bi taldeetakoek sailkapena egiaztatu beharko dute, eta hirugarren taldeetakoek kaudimen ekonomiko eta finantzarioa edo gaitasun tekniko edo profesionala.

h) **Atzerriko enpresek**: Espainiako edozein mailatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren menpe jartzen direla jasotzen duen aitortpena, kontratuaren ondorioz zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera ororentzako, eta dagokionean, lizitatzailari egokitu litzaiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko eginez, Plegu honekin batera erantsi den **III. Eranskinean** jasotako ereduaren arabera.

Europar Batasunetik kanpoko atzerriko enpresen kasuan, gainera, Espainian bulegoa dutela frogatu beharko dute, baita beren eragiketarako egiteko ahaldun edo ordezkariak izendatuta dituztela eta Merkataritza Erregistroan izena emanda daudela ere.

Enpresa horiek aurkezten duten dokumentazioa gaztelaniara edo euskarara ofizialki itzulita egongo da, HAKLEOren 23. artikuluan ezarritakoaren arabera.

i) **Helbide elektronikoa**, prozedura honen ondorioz egin beharreko jakinarazpenak egiteko, SPKLTBren 151.4. artikulua arabera eta hor aurreikusitako eraginekin (**IV Eranskina**).

j) **Memoria teknikoa**.

Proposamena memoria tekniko batean zehaztuko da, non Xedapen Teknikoen Pleguaren 5. klausulan zehaztutako baldintza guztiak bete direla justifikatuko den, eta puntuazio teknikoa izan dezaketean edukiak xehatuko diren (ikus Plegu honen 18. klausula).

Memoria horretan lizitatzailerek xehetasun handiagoarekin deskribatu beharko dute garraio-zerbitzua emateko modua, Zerbitzuaren beharrak betetzeko aurreikusi diren baliabideak eta plangintza egokiak direla justifikatuz.

2015 MAR. 31

(e)an onartua
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2015 APL: 09
ABR:



Idazberririk,

k) **Proposamen ekonomikoa.**

Lizitatuzaileek aurkeztu beharko dute Plegu honen **V. Eranskinean** jasotako eredura egokitutako proposamen ekonomiko bat.

Proposamen horrekin batera memoria ekonomiko bat ere erantsiko da, non honako hauek ere xehatuko diren:

- Langileen kostu unitarioak justifikatuko dira dagokion ezarri beharreko hitzarmen kolektiboaren kopiarekin eta langile bakoitzak enpresan duen kostua justifikatzen duen kalkuluarekin.
- Ibilgailuen eta makineriaren mantentze-lanen eta kontsumoaren kostu unitarioak (lanegun edo kilometro bakoitzeko, edo egokia deritzon unitate bakoitzeko) dagokion xehatutako kalkulu adierazgarriaren bidez justifikatuko dira.
- Aurrekontuaren xehapenak kontratuari egotzitako kostu GUZTIEN xehapen zehatza jaso beharko du: langileak, langileen estaldurak, inbertsioen amortizazioa (ezarri behar izanez gero), ibilgailuen mantentze-lanen eta kontsumoen gastu arruntak, makineria eta instalazioak, langileen jantziak, segurtasun eta osasun gastuak, aseguruak, administrazio eta zuzendaritza gastuak eta eskainitako prezioan eragina duen edozein kostu.
- Kostu horien batuketari industria eskubideen portzentaje bat ezarriko diote lizitatuzaileek.
- Era berean, kostu naturalak (langileak, mantentze-lanak, erregaiak, amortizazioa, etab.) xehatuko dira, adieraziz zenbat dagokion ekipoen amortizazioari, administrazio klausula partikularren plegu honen 7. atalean ezarritako prezioen berrikuspena egiten denean erreferentzia bat izateko.

Aurreko a) eta d) letretan adierazitako baldintzak egiaztatu ahalko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten eta Saillkatutako Enpresen Erregistro Ofizialaren, edo Estatuko Lizitatuzaileen eta Saillkatutako Enpresen Erregistro Ofizialaren ziurtagiri baten bidez, edo erkidegoko saillkapen-ziurtagiri baten bidez SPKLTBren 84. artikuluan ezarritakoaren arabera. Ziurtagiri hori lizitatuzailearen ardurapeko adierazpenarekin batera aurkeztuko da, non lizitatuzaileak adieraziko duen dagokion ziurtagirian jasotzen diren baldintzak ez direla aldatu. Adjudikazioduna izanez gero, adierazpen hori errepikatu egin beharko da kontratua formalizatzeko dokumentuan, kontratazio-organoak Kontratisten Erregistroan kontsulta bat egiteari kalterik egin gabe.

17 BEHIN-BEHINEKO BERMEAK ERATZEA

Lizitazio honetan lehiatzeko beharrezkoa izango da kontratazio-organoak eratutako behin-behineko bermea egiaztatzea, betekizun eta baldintza hauen arabera:

2015 MAR. 3 1

..... (e)an onartua
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2015


A.P.I.
A.B.R.

09



GHK
Gipuzkoako
Hondakinen
Kudeaketa

Idazkaria,



1. Behin-behineko bermea lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren % 2ari dagokion zenbatekoarekin osatuko da, BEZ kanpo.
2. Behin-behineko bermea honela eratu eta jarri ahal izango da:
 - a) Dirutan. Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian, edo, dagokion enterearen establezimendu baliokidean jarriko da, hala badagokio. Idatzitako balioen ibilgetze-ziurtagiriak kontratazio-organoaren aurrean jarriko dira.
 - b) Operatzeko baimena duten banku, aurrezki kutxa, kreditu-kooperatiba, kredituen finantza-establezimendu eta elkarrekiko berme-elkarteetako batek utzitako abalaren bidez, zein kontratazio-organoan jarri behar den.
3. Behin-behineko berme bezala eratzten diren abalak zilegituak izan behar dira behartzeko ahalorde nahikoa duten entitate abal-emalearen ahaldunaren bidez.
4. Behin-behineko bermeak aurkeztutako proposamenen mantentze-lanen erantzulea izango da adjudikazioa egiten denera arte. Esleipenduna den lizitatzaileren kasuan, bermeak bermatuko du, baita ere, Plegu honen 20. baldintzan zerrendatutako dokumentazioaren aurkezpenari eta kontratuaren formalizazioari dagozkion obligazioak bete direla.
5. Behin-behineko bermea automatikoki iraungiko da, eta lizitatzaileri bueltatua izango da kontratua adjudikatu eta berehala. Hala ere, adjudikaziodunarena mantendu egingo da, behin betiko bermea eratu arte, eta adjudikazioa baino lehen proposamena arrazoirik gabe bazterten duten enpresena konfiskatu egingo da, APKLEOren (Administrazio Publikoen Kontratuen Legearren Erregelamendu Orokorren) 62.1. artikuluan ezarritakoaren arabera.
6. Adjudikaziodunak aukera izango du: edo behin betiko bermeari behin-behineko bermearen zenbatekoa ezartzeko, edo behin betiko bermea oso-osorik eratzeko. Azkeneko kasu horretan, behin-behineko bermea indargabetu egingo da behin betiko bermea eratzearekin batera.

Espedientean behar bezala justifikatu da zergatik den egokia kontratu honetan behin-behineko bermea eskatzea.

18 AURKEZTUTAKO ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK.

Lizitatzailerek aurkeztu beharreko dokumentazioa 16. klausulan adierazitako edukiaren arabera izan behar da. Horrela, klausula honetan ezarritako adjudikaziorako irizpideak baloratuko eta puntuatuko dira.

Kontratua eskaintza onuragarrienari adjudikatuko zaio, irizpide objektibo hauen arabera:



Idazkariak

1. IRIZPIDEA: PROPOSAMEN TEKNIKOA (MEMORIA TEKNIKOA: ZERBITZUA EMATEKO PROIEKTUA): 15 PUNTURA ARTE.

Proposamen teknikoen balorazioa honela egingo da:

1. Zerbitzuaren beharrak betetzeko aurreikusi diren giza-baliabideak egokitzea. Pertsona kopuruaren, egindako lanen eta lanen kualifikazioaren xehetasunak azalduko dira **3 punturaino**
2. Zerbitzuaren beharrak betetzeko aurreikusi diren baliabide materialak egokitzea.
 - Trakzio-buruen, oin higikorreko erdiatoi erdi estankoen edo gainerako zatikia garraiatzeko ontzi kulunkarien kopuruari eta ezaugarri teknikoari buruzko informazioa emango da. Era berean xehatuko da trakzio-buruen, biohondakinak garraiatzeko oin higikorreko erdiatoi estankoen edo biohondakina garraiatzeko zerbitzuentzako eskainitako ontzi kulunkarien kopurua, ordezkoak barne, horrelakorik balego. Horretarako, ibilgailu bakoitzaren egiaztagiriak aurkeztuko dira, bakoitzaren ezaugarriak eta antzintasuna egiaztatzeko, eta eskainitako ekipoen egokitzapen teknikoa baloratu ahal izateko..... **6 punturaino**
3. Lanen plangintza eta antolaketa, baita memoria teknikoan adierazitako lanen xehetasun maila, BTParen (Baldintza Teknikoen Pleguaren) 5. atalean deskribatutakoaren arabera..... **6 punturaino**

2. IRIZPIDEA: LIZITATZAILEAREN PROPOSAMENEZ KONTRATUAN SARTU BEHARREKO HOBKUNTZAK: 5 PUNTURA ARTE.

Lizitatzailleek plegu honen hobekuntzak proposatu ditzakete, egokiak iruditzen zaizkien baliabide materialak eta giza-baliabideak eskainiz, eta proposatutako hobekuntzaren ezaugarri teknikoak, ekonomikoak eta frogagarriak zehaztuz, zenbatuz eta balioztatuz.

Horrek inoiz ere ez dio kosturik handituko GHKri, eta hori lizitatzailleak aurkezten duen eskaintzaren barruan egongo da.

Hobekuntza horiek gehienez ere 5 punturekin balioztatuko dira, GHKren zerbitzu teknikoen irizpidearen eta balorazioaren arabera.

3. IRIZPIDEA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA: 80 PUNTURA ARTE.

Sasietako Mankomunitatetik garraiatutako hondakin tona bakoitzeko lau prezio aurkeztu beharko dira:

2015 MAR. 3 1

.....(e)an onartua
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2015 A.P.I.
A.B.R. 09

Idazkariak,

NORAKOA SASIETATIK	GARRAIATUTAKO TONA BAKOITZEKO PREZIOA
Lapatx (Gipuzkoa) instalazioa – Gainerako zatikia	1. PREZIOA
Lapatx (Gipuzkoa) instalazioa Bihondakina	2. PREZIOA
Funesko (Nafarroa) Konpostatze-instalazioa - Bihondakina	3. PREZIOA
Caparrosoko (Nafarroa) Konpostatze-instalazioa	4. PREZIOA

Sasieta →Lapatx: 26km -Lapatx→Sasieta: 26km

Sasieta→Funes: 145km Funes→Sasieta: 145km

Sasieta→Caparroso: 140km Caparroso→Sasieta: 140km

Onartutako proposamenei dagokien eskaintza ekonomikoen puntuazioak honako koadro eta puntuen sailkapen honen arabera kalkulatu da, alegia, eskatutako eta eskainitako **PREZIO** bakoitzari puntuazio bat dagokio, GHKrentzat, norako bakoitzarentzat eta eskatutako prezioarentzat onuragarriena den proposamenaren arabera:

	1. PREZIOA	2. PREZIOA	3. PREZIOA	4. PREZIOA
Puntuazio max. P _{imax}	45	5	15	15

Norako bakoitzerako erreferentziazko tonak eta tona ez lotesleak honako hauek dira, gutxi gorabehera:

1. PREZIOA	2. PREZIOA	3. PREZIOA	4. PREZIOA
LAPATX	LAPATX	FUNES	CAPARROSO
GAINERAKO ZATIKIA	BIOHONDAKINA	BIOHONDAKINA	BIOHONDAKINA
16.800tn	8400tn		

Lizitaziorako prezio maximoak honako hauek dira kasu bakoitzean:

GAINERAKO ZATIKIA	BIOHONDAKINA		
<u>1. PREZIOA</u> LAPATX	<u>2. PREZIOA</u> LAPATX	<u>3. PREZIOA</u> FUNES	<u>4. PREZIOA</u> CAPARROSO
9 €/Tn	9€/tn	14,30€/Tn	14,30€/Tn

Onartutako proposamenei dagokien eskaintza ekonomikoen puntuazioa kalkulatu da eskaintako prezio unitario bakoitzaren ondorioz lortutako prezio partzialak batuta. Puntuazio partzialak (P_i) haien arabera emango dira, interpolazio linealaren bidez, P_{imax} (Baja maximoa, Puntuazio maximoa) eta P_{imin} (Zero Baja, Zero Puntuazioa) puntu biek zehaztutako luzearen arabera, eta luze horretan puntu horiek eskaintako prezio unitario bakoitzarentzat mugatutako segmentuaren barruan.

Eskaintzetan "prezioa" elementua alderatzeko, soilik bakoitzaren Prezio garbia (BEZ kanpo) hartuko da kontuan.

Hauek dira arestian aipatutako puntuak:

P_{imax} – Eskaintza ekonomikoenari (Baja maximoa) dagokiona, zeinari emango zaion eskaintako prezio unitario bakoitzari emandako P_{imax} puntuen (aurreko taulan adierazitako puntuazio maximoaren) besteko puntuazio maximoa.

P_{imin} – Prezio unitario bakoitzaren Lizitaziorako Oinarrizko Aurrekontuari dagokiona, zeinari puntuazio partzial bakoitzeko 0 puntu emango zaion.



$$P_i = (P_{imax} \times B_i) / B_{imax}$$

(B_{imax} = Prezio unitario bakoitzaren baja maximoa)

Baja (B_i) da: lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren eta eskaintza ekonomikoaren arteko kendura, zati eskainitako prezio unitario bakoitzarentzako lizitazioaren oinarritzko prezioa.

P_i da: eskaintza egiten duenari dagokion puntuazioa eskainitako prezio unitario bakoitzean formula ezarri ondoren.

Hortaz, puntuazio totala izango da: eskaintza egiten duen bakoitzak lortutako puntuazio partzialen batuketaren emaitza.

$$P = \sum P_i$$

Ez dira kontuan hartuko lizitazioaren oinarritzko prezio bakoitza baino prezio unitario handiagoak dituen proposamen ekonomikodun eskaintzak.

19 PROPOSAMEN NEURRIGABEAK EDO ANORMALAK

1. Hasiera batean, anormaltzat edo neurrigabetzat hartuko da proposamen orenen baja, zeinaren portzentajea onartutako proposamen guztien bajako portzentajeen bataz besteko aritmetikoa baino % 20 handiagoa denean, gutxienez.
2. Lizitzaile bakoitzaren proposamena kalkulatzeko, 1, 2, 3 eta 4 prezioentzat balioetsitako urteko kopuruak biderkatuko dira lizitzaileek eskainitako prezio unitario bakoitzarekin.
3. Kontratu honen xedeari dagokionez eskaintza anormalak edo neurrigabekoak jasoko balira, Kontratazio-mahaiak, eskaintza horiek baztertu aurretik proposamen horiek aurkeztu dutenei eskaintzaren osaketaren inguruko idatzizko azalpenak eskatuko die, eta osaketa hori egiaztatuko du ematen dioten azalpenak kontuan izanik. Horretarako, lizitzaileei hiru (3) eguneko epea emango die, aipatu azalpenen eskaera jasotzen den egunetik zenbatzen hasita.

Kontratazio-mahaiak hainbat justifikazio objektibo har ditzake kontuan, esaterako, eraikuntza edo fabrikazio metodoaren ekonomia, hautatutako konponbide teknikoak, edo lizitzaileak ohiz kanpoko baldintza onuragarriak erabiliko dituela kontratua gauzatzeko.

Edozein kasutan ere, ohi ez bezala eskaintza baxuak aurkeztuko balira, GHK-k baztertu ahal izango ditu dagokion lizitatuak eskaintako justifikazioaren arabera.

20 PROPOSAMENAK IREKITZEA, ESKAINTZAK SAILKATZEA ETA KONTRATUAREN ADJUDIKAZIOA.

20.1. Eskaintzen sailkapena.

G.H.K.ko zerbitzu teknikoek, epe barruan eta modu egokian aurkeztutako dokumentuak kalifikatuko dituzte eta zuzendu daitezkeen akatsak edo omisioak antzematen badituzte, lizitatuak gehienez hiru egun balioduneko epea emango diote horiek zuzen ditzan.


Dokumentazioan antzemandako akats edo omisioak zuzendu ondoren, hala badagokio, eta eskatzaileen gaitasuna eta kaudimena egiaztaturik, kontratazio fasea irekiko da, hurrengo gai ekonomiko eta teknikoaren inguruan eztabaidatu ahal izango delarik: prezioa, berme epea, hobekuntzak, ...

Aurkeztutako eskaintzak ikusita eta parte-hartzaileekin egin beharreko negoziazioak egindakoan eta burututakoan, kasua bada, GHK-ko Zerbitzu Teknikoek eskaintzei buruzko txostena egingo dute eta Kontratazio Mahaiari helaraziko diote. Kontratazio Mahaiak, proposamena egin aurretik, behar dituen txosten tekniko eta juridikoak eskatu ahal izango ditu kontratazio-organoari eskaintzen sailkapen proposamena egiteko.

Kontratazio-organoak aurkeztutako proposamenak sailkatuko ditu, goitik behera, eta neurrigabeak edo anormalak aitortuak ez badira izan, xedapen teknikoaren pleguan horrela ohartaraziko balitz. Sailkapen hori egiteko, pleguan edo iragarpenean adierazitako adjudikazio irizpideei erantzun beharko die. Horretarako, egokiak deritzon beste txosten tekniko eska ditzake, SPKLTBren 151. artikuluan ezartzen denaren arabera.

Kontratazio-organoak ekonomikoki onuragarriena den eskaintza aurkeztu duen lizitatuari eskatuko dio hamar (10) egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita, adjudikazioaren prezioaren % 5eko behin betiko bermea jarri izana, eta zergen eta gizarte segurantzaren arloko obligazioak beteta dituela justifikatzeko dokumentazioa aurkez dezan, edo kontratazio-organoari baimena eman diezaion zuzenean horren ziurtagiria jasotzeko. Ziurtagiri horiek elektronikoki, informatikoki edo telematikoki igorri daitezke, pleguetan beste zerbait ezartzen ez bada.

Eskakizun hori aipatu epean behar bezala betetzen ez bada, lizitatuak bere eskaintza baztertu duela ulertuko da, eta ondorioz, hurrengo lizitatuari, eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenaren arabera, dokumentazio berdina eskatuko zaio.



20.2. Esleipena.

Kontratazio organoak kontratua esleitu beharko du dokumentazioa jaso eta hurrengo bost (5) egun baldinuetan.

Lizitazio bat ezin izango da hutsik geratu, pleguan agertzen diren irizpideekin bat datorren eskaintza edo proposamena baldin badago.

Esleipena arrazoitu egin beharko da, hautagai edo lizitatzaillei jakinaraziko zaie eta, aldi berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

20.3. Esleipenaren jakinarazpena.

Jakinarazpenak beharrezko informazioa izan beharko du, edozein kasutan ere, eta honako informazioa jaso beharko du:

- Baztertutako hautagaiei dagokienez, hautagaitza baztertu izanaren arrazoiak laburpena.
- Adjudikazio-prozeduratik baztertutako lizitatzaillei dagokienez, beraien eskaintza zergatik ez den onartu azaltzen duten arrazoiak, laburtuta, baita ere.
- Edozein kasutan ere, adjudikaziodunaren izena, eta horren eskaintza hautatua izateko, onartutako gainerako lizitatzailleek aurkeztutako eskaintzen artean, zer ezaugarri eta abantaila izan diren erabakigarriak.

Adjudikazioa arrazoitzeko, SPKLTBren 153. artikuluan jasotako konfidentzialtasun salbuespena ezarriko da.

Jakinarazpena egiteko, hartzaileak jaso izana agerian utz dezakeen edozein bide erabil daiteke. Zehazki, lizitatzailleek edo hautagaiek eskaintza aurkezterakoan Plegu honen IV. Eranskinean adierazitako helbide elektronikoaren bidez egin daiteke, ekainaren 22ko 11/2007 Legeak, herritarrak zerbitzu publikoetara bide elektronikoz sartzeari buruzkoak, 28. artikuluan xedatutakoaren arabera. Hala ere, jakinarazpena ukatutzat jotzeko epea bost (5) egunekoa izango da; eta errefusatze horrek azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.4 artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

Hala ere, kontratazio-organoak ezin izango ditu adjudikazioari buruzko zenbait datu jakinarazi, uste badu, espedientean behar bezala justifikatu ondoren, informazio hori dibulгатzeak arau bat ezartzea oztopatu dezakeela, interes publikoaren aurkakoa izan daitekeela edo enpresa publikoen edo pribatuen merkataritza interes legitimoak edo beraien arteko konkurrentzia leiala kaltetu dezakeela.

20.4. Esleipenaren ebazpena.

Aukeratutako lizitatzailleak beharrezko baldintzak betetzen ez dituelako kontratua ezin denean adjudikatu, beste lehiaketa berri bat egin aurretik Administrazio Kontseiluak

2015 MAR. 31

..... (e)an onartua
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2015 A.P.I.
ABR. 09



Idazkariak

adjudikazio berri bat egin diezaieke haren ondorengo lizitatuileari edo lizitatuileei, horien eskaintzak sailkatuta dauden hurrenkeran, betiere, hori egin daitekeenean, eta adjudikaziodun berria ados dagoenean. Horrela eginez gero, adjudikaziodun berriari hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio Plegu honen 20.2 y 21 klausulan adierazitako dokumentazioa aurkez dezan.

20.5 Dokumentazioaren zaintza

Kontratua adjudikatu eta dagozkion helegiteak jartzeko epea igarotzen bada horiek jarri gabe, proposamenekin batera eman den dokumentazioa interesatuen eskura jarriko da. Dokumentazioa kentzeko eskaera idatziz egin beharko da. Horiek dokumentazioa kentzen ez badute epe hori igaro ondorengo hiru hilabeteetan, kontratazio-organoak ez du dokumentazio hori zaintzen jarraitu beharko, behin-behineko bermea justifikatzen duten dokumentuak izan ezik, zeinak gordeko diren interesatuei emateko.

21 ADJUDIKAZIODUNARI ESKATUTAKO DOKUMENTUAK

Adjudikaziodunak aurkeztu beharko du, kontratua formalizatzeari ekin baino lehen, eta aurreko klausulan adierazitako dokumentuekin batera, plegu honen 16. baldintzan eskatzen den aseguru-polizaren eguneratutako ordainagiriaren benetako kopia.

ABEEa legez eratu dela egiaztatzen duen ziurtagiria, dagokionean.


Edozein kasutan ere, aipatu Jarduera Ekonomikoen Zergaren matrikulan bajarik ez dela eman ziurtatzen duen ardurapeko adierazpenarekin gehitu beharko da.

22 BEHIN BETIKO BERMEA

Plegu honen 20.1 baldintzak adierazten duen bezala, ekonomikoki eskaintzarik onuragarriena aurkeztu duen lizitatuileak kontratazio-organoaren aldeko behin betiko bermea eratzeko obligazioa izango du, **adjudikazioaren prezioaren % 5ean**, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kanpo, eta SPKLTBren 95.2. artikulua arabera, kontratuaren obligazioak betetzen direla bermatzeko.

- Behin betiko bermeak SPKLTBren 100. artikuluan aipatutako kontzeptuen ardura izango du.
- Bermea eratu ahal izango da SPKLTBren 96. artikuluan ezarritako edozein baliabidetan. Bermea osatu dela egiaztatzeko bitarteko hauek erabil daitezke: elektronikoak, informatikoak edo telematikoak. Baldintza hori beteko ez balitz lizitatuileari egotzi daitezkeen arrazoiengatik, GHK-k ez du bere aldeko

Idazlarria



adjudikaziorik egingo, eta ondorioz, SPKLTBren 151.2. artikulua ezazkereneko paragrafoan ezarritakoa ezarriko da.


- Adjudikaziodunari kontratuaren obligazioak ez betetzeagatik zigorrak ezarri gero, kontratazio-organoak bermearen aurka egin dezake oztoporik gabe, adjudikaziodunak erreklamazio edo baliabide horiek bideratzen dituen bitartean eskubide hori eten gabe.
- Adjudikaziodunak kontratua ezarritako edozein obligazio ez betetzearen ondorioz eraturako bermearen kontra egingo balitz, adjudikaziodunak garantia hori osatu edo zabaldu beharko luke dagokion zenbatekoan, eta hamabost (15) eguneko epean, bermearen exekuzioa eraginkorra egiten den egunetik zenbatzen hasita.
- Kontratuaren egokitzapen baten ondorioz kontratuaren prezioa aldatuko balitz, bermea berregokitu egin beharko litzateke, dagokion proportzioa izan dezan egokitutako prezio berriarekin, eta hori hamabost eguneko epean, enpresariari egokitzapen akordioa jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita.
- Bermea SPKLTBren 102. artikuluan ezarritakoaren arabera bueltatuko da, berme-epea amaitu ondoren eta adjudikaziodunak kontratuaren legezko obligazio guztiak bete ondoren.
- Behin betiko bermeak urtebeteko eragina izango du, GHK-k kontratua jaso izanaren akta sinatzen den unetik zenbatzen hasita, Plegu honen 26. klausulan jasotzen dena.
- Klausula honetan jasotzen diren akordioen arteko edozein betetzen ez bada, kontratua GHK-ren alde ebatzi ahal izango da, beti ere kontratista bada horiek bete ez dituen.

23 KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratua formalizatzen denean burutzen da.

23.1 Kontratuaren formalizazioa.

1. Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da, HAMABOST (15) egun baliioduneko epean, adjudikazioaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita, SPKLTBaren 151.4 artikuluan eta plegu honen 20.3 klausulan aurreikusitakoaren arabera.
2. Kontratua formalizatzeko dokumentuak SPKLTBren 26. artikuluan eta APKLEOren 71. artikuluan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu.



3. Kontratua sinatzeaz batera, adjudikaziodunak sinatu beharko ditu Administrazio Klausula Partikularren Plegua, Xedapen Teknikoen Plegua eta adjudikaziodunak egindako eskaintza, aipatu kontratuaren eranskin bezala jasoko direnak, APKLEOren 71. artikulua araberaz.
4. Adjudikaziodunak eskatuko balu kontratua eskritura publikoan formalizatzea, bere kontura, organo-kontratatzailerari eskritura horren kopia xumea eman beharko dio.

23.2 Formalizazio faltaren eraginak

1. Adjudikaziodunari egotzi daitezkeen arrazoiengatik kontratua ezin izango balitz formalizatu aurreko atalean aurreikusitako epean, SPKLTBren 156.4. artikulua ezarritakoa ezarriko litzateke.
2. Epe barruan ez formalizatzeak arrazoiak kontratazio-organuari egoztekoak badira, atzerapenak sortu ahal dizkion kalte-ordainen indemnitazioa eskatu ahal izango adjudikaziodunak.

III. KAPITULUA: ALDERDIEN ESKUBIDEAK ETA OBLIGAZIOAK

24 KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK

Kontratua exekutatzekoan, kontratistak Pleguan aitortzen diren eskubideak izango ditu, eta bereziki, jarraian ezartzen direnak:

24.1 Kontraprestazioak jasotzeko eskubidea.

Kontratistak, kontratua bere arriskuz eta menturaz exekutatzeari dagokion hitzartutako prezioaren abonurako eskubidea izango du, Plegu honetan eta kontratuaren gainerako dokumentazioan aurreikusitako baldintzen arabera.

24.2 Kontratua lagatzea.

1. Debekatuta dago alde aurreko baimenik gabe kontratutik sortzen diren eskubideak eta obligazioak hirugarrenei lagatzea. Lagapen hori berariaz eta idatziz ematen du kontratazio-organoa, zeinak ukatu ahal izango duen lagatzailearen gaitasun teknikoak edo pertsonalak kontratua adjudikatzeko orduan arrazoi erabakigarriak balira.

2015 MAR. 31

Aprobado por Consejo de Administración. (e)an onartua

Hernani,

2015 APR. 09



[Handwritten signature]
Lazkaniak

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, kontratuaren lagapena baimentzeko, ezinbesteko baldintza izango da, gutxienez, kontratuaren zenbatekoaren ehuneko hogeia exekutatu izana, eta lagapen-hartzaileak izatea Plegu honen lizitatzaileei eskatzen zaien gaitasun eta kaudimen baldintza berak.
3. Eskritura publikoan baimendu eta formalizatu ondoren, lagapen-hartzailea subrogatuta geratuko da, lagatzaileari egokituko litzaizkiokeen eskubide eta betebeharrak guztietan.

24.3 Azpikontratazioa.

Kontratuaren zerbitzuak azpikontratatu ahal izango dira bakarrik Administrazio Kontseiluak berariazko eta idatzizko baimena ematen badu aldez aurretik, eta beti ere, azpikontratatutako GHKrekin kontratatutako legezko baldintzak eta Plegu honetan eskatutako baldintzak betetzen baditu, eskatutako sailkapena egiaztatzen badu, eta Plegu honetan aurreikusitako bitartekoen atxikipena izateko obligazioa betetzeko konpromisoa hartzen badu. Hori guztia, azpikontratatu beharreko zerbitzuari edo zerbitzuei dagokionez. Edozein kasutan ere, ezin izango da SPKLTBren 227. artikuluan ezarritako azpikontrataziorako muga gainditu.

25 KONTRATISTAREN OBLIGAZIOAK

Kontratua kontratistaren arriskuz eta menturaz gauzatuko da.

Kontratatutako, xedapen teknikoaren pleguan aurreikusitako obligazioez gain, honakoak ere bete beharko ditu:

- Zerbitzua ezarritako epean ematea.
- Proposamenean hitzemandako giza-baliabideak kontratua gauzatzekoan atxikitzea.
- Plegu honetan eskatutako aseguru-polizak kontratatzea.
- Behin betiko bermea eratzeta.
- Lizitazio eta adjudikazio iragarpenei dagokien gastuak ordaintzea.
- Lan arloko eta Gizarte Segurantzako gaitan indarrean dauden xedapenak betetzea, kontratu honen xede diren zerbitzuetan erabiliko diren langileei dagokienez.
- Kontratuaren xede dena gauzatzeko beharrezkoak diren bisak, baimenak eta lizentziak, dokumentuak edo beste edozein informazio, bai ofiziala zein pribatua eskuratzea.
- Kontratuaren xedea gauzatzeko sor daitezkeen beste edozein gastu, fiskalak barne, indarrean dauden xedapenen arabera.

2015 MAR. 31

Aprobado por Consejo de Administración. (e)an onartua

Hernani, 2015 A.P.I. ABR. 09



Idazkaririk,

- Kontratua gauzatzea eskatzen dituen eragiketen ondorioz GHKri zein hirugarrenei sortzen zaien kalte-ordainak indemnitzatzea.
- Lan eta gizarte-arau guztiak betetzea, bereziki, Gizarte Segurantzari, Segurtasun eta Higieneari eta Lan Arriskuen Prebentzioari dagozkionak.
- Kontratistak datu pertsonaletarako sarbidea badu, 15/1999 Lege Organikoak, abenduaren 13koak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoak, eta lege hori garatzen duen araudiak ezarritako obligazio guztiak bete beharko ditu.
- Kontratua bukatzerakoan, adjudikaziodunak GHKren garraibideak itzuli beharko dizkio horri, mantentze eta funtzionamendu-egoera ezin hobetan, eta adjudikaziodunaren kontura izango dira kontratuaren indarraldian zein hori amaitzean sor daitezkeen mantentze-lanen gastuak, aseguruak, IATak etab., baita garraibideak GHKra itzultzeko prest uzteko beharrezkoak izan daitezkeen lanengatik sor daitezkeen gastuak ere.

25.1 Beharrezko langileak.

Xedapen Teknikoen Pleguaren 4.2 klausulak ezartzen duenaren arabera, adjudikaziodunak beharrezko langileak izan beharko ditu une oro zerbitzua emateko, Xedapen Teknikoen Pleguan eta aurkeztutako eskaintzan deskribatutako gidalerroen eta espezifikazioen arabera.

Kontratista adjudikaziodunak, kontratua gauzatzerakoan, ezin izango du, kontratu honi atxikirik, eta modu egonkorrean, langile gehiago kontratatu, GHKren idatzizko aldez aurreko baimenik gabe. Horretarako, aldez aurretik eskaera formal bat aurkeztu beharko du dagokion justifikazioarekin batera, zein GHKren zerbitzu teknikoek balioztatuko duten, eta zeinak eskaera hori onartu edo baztertu dezakeen. Beraz, langile berriak sartzen badira, aldi baterako izango da, kasuan kasuko beharrak edo ohiz kanpoko baldintzak betetzeko, eta beti ere, adjudikaziodunaren kontura, zeinak langile berri horien gastuak bere gain hartuko dituen, baita kontratuen deuseztapenen, kaleratzeen, eta abarren ondorioz sortutakoak ere, hala badagokio.

Hortaz, lizitatzailleek beharrezko langileen aurreikuspenaren proposamen bat aurkeztu beharko dute beraien proposamenetan, kontratatutako zerbitzuak modu eraginkorrean egiteko, baita langileak ordezkatzeko plan bat ere.

Zerbitzuaren aurrean, eta erantzule nagusia bezala, Kontratuaren Ordezkarria agertu beharko da, zein kontratu honen xede den garraio-zerbitzua antolatzeko eta gainbegiratzeko pertsona arduraduna izango den. Kargu hori gauzatuko du kontratuaren alderdi guztietan erabakiak hartzeko gaitasun nahikoa duen eta enpresa adjudikaziodunaren egiturakoa den pertsona batek. Pertsona horri dagokionez, Xedapen Teknikoen Pleguaren aipatu 4.2. klausulan adierazitako guztia zein plegu honen 32. klausulan ezarritakoa aplikatu ahal izango da.

GHK-k ez du harreman juridikorik, laneko harremanik edo beste edozein motatako harremanik izango enpresa adjudikaziodunaren langileekin ez kontratuak irauten duen

2015 MAR. 31

Aprobado por Consejo de Administración. (e)an onartua

Hernani,

2015 A.P.I.
ABR. 09



Idazkaria

bitartean ez kontratua bukatzen denean. Hortaz, enpresa adjudikaziodunaren kontura izango dira kontratu hau iraungitzerakoan edo altan garraiatzeko zerbitzua ematerakoan sor daitezkeen obligazio, indemnizazio eta erantzukizun guztiak.

25.2 Konfidentzialtasuna.

GHK-k, kontratua gauzatzeko, kontratistari edozein euskarritan emandako informazioa, dokumentazioa, planoak, artxiboak edo espezifikazioak konfidentzialtzat hartu beharrekoak izango dira kontratistaren aldetik. Hortaz, ezin izango dira, erabat edo partzialki, argitaratu, zabaldu, edo erabili kontratua gauzatzeko helburua ez den beste helburu baterako, edo hirugarrenei jakinarazteko edo lagatzeko.

Kontratistak bere gain hartzen du dokumentazioa leialki eta kontuz zaintzeko obligazioa, kontratuaren prestazioak egiteko ematen zaion euskarria edozein izanda ere, eta hortaz, konpromisoa hartzen du dokumentazioa eta berak gordetzen duen informazioa ez dela inolaz ere iritsiko kontratua gauzatu ez duten hirugarren pertsonen eskuetara.

Kontratistak bere gain hartzen du kontratu honen bidez hartu duen erreserba eta isilgordea zaintzeko betebeharra bere zerbitzura dauden langileei jakinarazteko obligazioa.

26 KONTRATAZIO-ORGANOAREN ESKUBIDEAK (GHK-REN ADMINISTRAZIO-KONTSEILUA)

Pleguan eta kontratuaren gainerako dokumentazioan, zein aplikatu beharreko araudian, adierazitako baldintzen eta eraginien mugen barruan eta horiek betez, GHK-k ondoren azaltzen diren eskubideak izango ditu.

Edozein kasutan ere, GHK-k beharrezkoak liratekeen neurri guztiak hartu ahal izango ditu kontratuaren xedearen exekuzioa etetea saihesteko, eta horrela, bere jarraipena bermatzeko, bereziki, kontratistak kontratua beteko ez lukeen kasuetan. Kasu horietan, kontratistak sor ditzakeen gastuen eta kostuen ardura kontratistari eragozteko eskubidea izango du GHK-k, baita, dagokionean, gastu eta kostu horiek, GHKrekin edozein kontzeptugatik zorren bat izanez gero, zor horrekin konpentsatzeko ere. Hori guztia egingo da Pleguan kontratuaren ebazpenari dagokionez aurreikusitako guztiari kalterik egin gabe.

26.1 Kontratuaren egokitzapena.

GHK-k kontratua egokitu ahal izango du interes publikoko arrazoiengatik, eta behar bezala justifikatutako aurreikusigabeko arrazoiei erantzuteko.

2015 MAR. 31

..... (e)an onartua
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2015

API
ABR.

09



GHK
Gipuzkoako
Hondakinen
Kudeaketa

Idazkaria

SPKLTBak 107. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen bada, kontratua aldatu egin ahal izango da, betiere aldaketa horrekin lizitazioaren eta adjudikazioaren funtsezko baldintzak aldatzen ez badira.

Aldaketa posible horiek nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat.

Kontratuaren egokitzapena idatziz formalizatu beharko da, SPKLTBren 107. artikuluan aurreikusitako moduan.

26.2 Ezarri beharreko araudian onartutako eskubideak

Plegu honetan eta kontratuaren gainerako dokumentazioan onartutako eskubideez gain, GHK-k izango du ezarri beharrekoa den araudian onartutako beste edozein eskubide.

27 KONTRATAZIO-ORGANOAREN OBLIGAZIOAK

GHK-k beteko ditu Plegu honen, kontratuaren dokumentazioaren eta indarrean dagoen araudiaren ondorioz sor daitekeen obligazio oro.

IV. KAPITULUA: KONTRATUAREN EXEKUZIOAREN GARAPENA ETA JARRAIPENA

28 ZERBITZUAK EMATEN HASTEAN

Kontratista zerbitzuak ematen hasi beharko da kontratua formalizatzen den unetik aurrera.

29 LAN-PROGRAMA.

1. Kontratatik Lan Programaren bidez bere eskaintzan aurkeztutako zerbitzuak emateko planifikazioa zehaztu beharko du, GHKri, gehienez ere, hamar (10) egun naturaleko epean aurkeztu beharko diona, kontratua formalizatzen den egunetik aurrera.
2. GHK-k Lan Programa gehienez ere hamar eguneko (10) epean onartu beharko du, programa hori aurkeztu den biharamunetik aurrera, eta dagokionean, baita jaso beharreko egokitzapenak eta xedapenak ere, beti ere, kontratuaren edukiaren kontrakoak ez badira.
3. Kontratatik aurkeztutako Lan Programa egokituko ez balitz Xedapen Teknikoen Pleguan eta kontratuaren gainerako dokumentuetan jasotako xedapenetara, edo egokitzapenak egitea beharrezkoa izango balitz, GHK-k kontratistari eskatuko dio

2015 MAR. 31

Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2015 APR. 03



(Handwritten signature)
Idazkaririk.

bost (5) eguneko epean zuzenketak konpon ditzan eta aurkeztutako Lan Programan GHK-k egokiak deritzon xedapenak sar ditzan, beti ere, kontratuaren klausulen kontrakoak ez badira. Kasu horretan, GHK-k bost (5) eguneko epe berri bat izango du aurkezpena egiten duenetik aurrera, Lan Programa gainbegiratzeko eta onartzeko.

2. GHK-k onartu ondoren, Eranskin bezala jasoko da alderdi biek formalizatutako kontratua.
3. Lan Programak jaso beharko du kontratatutako zerbitzuak emateko beharrezko lanen programa osoa, xehatua eta arrazoitua.

Kontratatistak Lan Programa eguneratu beharko du kontratuaren baldintzak aldatuz gero. Hortaz, beharrezkoa izanez gero, lan-programa finkatu edo eguneratu eta doitu du.

GHK-k adostu dezake zerbitzuen ordainketak ez bideratzea, kontratatzaileak lan-programa behar bezala aurkezten duenera arte, faktura horien ordainketaren atzerapenean berandutze-interesetik eskubiderik izan gabe.

30 SEGURTASUN ETA OSASUN PLANA LANEAN

Kontratuaren kontratista adjudikaziodunak GHKren aurrean egiaztatu beharko du Laneko Segurtasun eta Osasun betebeharrak betetzen dituela.

Enpresak kontratuaren exekuzioaren zati bat azpikontratatu badu, azpikontratatuzaileei exijitu beharko diete beharrezkoak liratekeen obligazioen justifikanteak, eta horiek GHKren prebentzio-zerbitzuari entregatu beharko dizkiote.

Lanak ezin izango dira hasi GHKren prebentzio-zerbitzuak, beharrezkoa den dokumentazioa egiaztatu ondoren, baimena eman baino lehen.

Lanak egiterakoan langileek edozein motatako istripuren bat edo kalteren bai izanez gero, enpresak indarrean dauden arauetan ezarritakoa betetzeko ardura hartuko du, eta GHK-k ez du inolako ardurarik izango.

31 LANEN ZUZENDARITZA.

Kontratatistak emango du laguntza GHK-k onartutako Lan Programaren, eta GHK-k, kontratuaren dokumentazioaren interpretazio teknikoa eginez, idatziz agindutako jarraibideen arabera, zeinak derrigorrez bete beharko dituen kontratatistak.

2015 MAR. 31

(e)an onartua
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2015 A.P.
ABR. 09



Idazkaria,

32 KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

32.1 Izendapena

Zerbitzuak hasi baino lehen, kontratistak bere Ordezkaria izendatu beharko du GHKren aurrean, bere eskaintzan aurreikusitakoaren arabera, eta Ordezkaria horrek Xedapen Teknikoen Pleguan zehaztutako obligazioen ardura hartuko du. Organo-kontratatzaileak izendatutako pertsona onartu beharko du.

32.2 Funtzioak

Kontratatzen Ordezkararen oinarrizko funtzioak honako hauek dira:

- Kontratatzen ordezkaria lanak egin, kontratu honen xede diren zerbitzuak gauzatzearekin lotutako kontratu-obligazioak betetzerakoan.
- Zerbitzuen exekuzioa antolatu eta GHK-k emandako aginduak interpretatu eta martxan jarri.
- GHKrekin batera lan egin zerbitzuak ematerakoan sortzen diren arazoak konpontzeko.
- Aurrea hartu laguntza ematerakoan egon daitezkeen hutsune posibleei, eta zuzentze-, prebentzio-neurriak, etab. proposatu.
- Antolatu giza-baliabideak eta baliabide materialak kontratuaren xede diren prestazioak gauzatzeko.
- Lanak optimizatu.

33 ZERBITZUAK EXEKUTATZEKO ERREGIMENA

1. Kontratatzen, zerbitzuak gauzatzeko, zorrotz jarraituko ditu kontratuaren dokumentuen aurreikuspenak, behar den adinako arreta jarri, eta GHK-k kontratistari ematen dizkion jarraibideen arabera.
2. Zerbitzuak gauzatzeko, gauzatzeko unean bertan ezarri behar diren araudi teknikoak erabat errespetatu eta bete beharko dira. Kontratatzen une oro bete beharko du indarrean dagoen araudia, eta bereziki, lan-arloari, segurtasunari eta osasunari, eta ingurumena babesteari dagokiona.

Agintari-eskumendunek arau horiek ez betetzeagatik jar ditzaketen zigorrak bere gain hartuko ditu kontratistak, eta GHK-k zerbitzuen ordainketa eten egin dezake, zigor horiek ordainduta daudela egiaztatu arte, gelditze horrek kontratatzen alde interesik sortzeko eskubiderik izan gabe.

3. Zerbitzuak ematerakoan ibili behar diren ibilgailuek, materialek, ekipoez, elementuek eta makinek kontratuaren dokumentazio osoan eta indarrean dagoen ezarri beharreko araudian eskatzen diren kalitateak eta ezaugarriak izan beharko dituzte.
4. Zerbitzuak baliabide propioen edo baliabideen azpikontratazio partzialaren bidez eman ahal izango ditu kontratistak, bere eskaintzan aurreikusitakoaren arabera eta Plegu honen 24.3 klausulan ezarritako mugekin eta baldintzekin.
5. Ordezkariek edo kontratistak inola ere ezin izango du aldaketarik sartu edo gauzatu eman beharreko zerbitzuetan, dagokion onarpenik gabe.

34 KONTRATISTAREN BALIABIDE MATERIALAK ETA PERTSONALAK

Kontratistak, zerbitzuak gauzatzeko, teknikoki eta objektiboki beharrezkoak eta egokiak iruditzen zaizkion baliabide materialak eta giza-baliabideak erabili beharko ditu, zerbitzu horiek eskainitako epearen barruan eta eskaintzan ezarritako kalitatezko baldintzekin bukatzeko.

Kontratuaren arabera, funtsezko obligazioa da eskainitako baliabide materialak eta giza-baliabideak erabiltzea zerbitzuak gauzatzeko. Hori ez betetzea, kontratua suntsiarazteko arrazoi nahikoa izango da.

35 ARRISKUA ETA MENTUARE ZERBITZUAK GAUZATZERAKOAN

1. Zerbitzuak kontratistaren arriskuz eta menturaz gauzatuko dira.
2. Zerbitzuak ematerakoan atzerapenak egongo balira, eta atzerapen horien ardura kontratistarena izango balitz, Plegu honen 41. eta 43. klausuletan jasota dauden zigorren erregimena eta kontratuaren ebazpena beteko dira.

36 ZERBITZUAK GAUZATZERAKOAN DESADOSTASUNAK EBAZTEA

1. GHK-k, kontratistari ordainketak onartzeko ikuskapenak eta kontrolak egiterakoan, antzemanaz gero horiek ez datozela bat kontratuaren dokumentazio osoan ezarritakoarekin, espediente bat irekiko da non islatuko den horren egoera, bat ez datorren zerbitzua edo zerbitzuak eta horien arduraduna, zein desadostasuna bukatu arte gertatzen diren gertakari guztien jarraipena ere.
2. Espedientea ireki ondoren eta kontratistaren Ordezkaria entzun ondoren, GHK-k dagokion neurri zuzentzaileak eta neurri horiek ezartzeko epea adostuko du, behar bezala dokumentatu beharko direnak aldeztu aurretik. Neurri zuzentzaileak ezarri ondoren, eta GHK-k uste badu antzemandako irregulartasunak ondo konpondu direla, GHK-k desadostasuna kendu eta irekitako espedientea itxiko du.



3. Espediente horren ondorioz, kontratistari dagozkion zigorrak ezarri ahal izango zaizkio, Plegu honen VII. Kapituluaren ezarritakoaren arabera.

37 DOKUMENTAZIOA KONTROLATZEA ETA ENTREGATZEA

37.1 Dokumentazioa kontrolatzea

1. Kontratatik dokumentuak artxibatzeko eta informatikoki kontrolatzeko sistema zehatza ezarri eta mantendu beharko du, eta ziurtatu beharko du dokumentazioaren identifikazioa, berrikuspena, egoera eta lokalizazioa zehaztuta dagoela kontratu hau gauzatzeko fase guztietan.

Kontratatik dokumentuak kontrolatzeko sistemak azpikontratisten dokumentazioa ere izango du kontuan.

2. Kontratatik kontratuaren dokumentazioa identifikatzeko sistema garatuko eta mantenduko du, lan guztietan jasota egon dadin, kontratatik eta GHK-k kontratua gauzatzekoan dokumentazioa kontrola ahal dezaten.
3. Kontratatik ezarritako artxibatzeko sistema informatikoa tresna egokia izan beharko da GHK-k dokumentazioa eskura, azkar transmititu eta osorik balia dezan.

37.2 Dokumentazioa entregatzea

1. Kontratatik obligazioa izango du, zerbitzuak gauzatzen duen bitartean, kontratuaren xedean jasotzen den dokumentazio guztia osorik eta zuzen emateko, kontratuaren exekuzioan zehar GHK-k onartutako aldaketa eta hobekuntza guztiak barne, Plegu honetan eta kontratuaren gainerako dokumentazioan ezarritakoaren arabera.
2. Kontratatik obligazioa izango du kontratuari eta indarrean dagoen legeriari ezarri beharreko kodeen eta arauen arabera gauzatzeko dokumentazio guzti hori.
3. Zerbitzuak ematen bukatzerakoan, kontratatik GHKri emango dio zerbitzu horietan zehar sortutako dokumentazio tekniko guztiaren kopia bat, baita lor daitezkeen baimen, lizentzia eta gainerako beharrezko administrazio-baimen guztiak ere.

38 BERME-EPEA

1. Zerbitzuen berme-epea sei (6) hilabetekoa izango da, exekuzioa bukatzen denetik zenbatzen hasita, kontratatik bere eskaintzan epe luzeagoa proposatu ezik. Kasu horretan, berme-epea kontratatik eskainitakoa izango da.
2. Berme-epetan zehar, kontratatik behar besteko ekintzak egiteko obligazioa izango du, beharrezkoak diren konponketak eta gainerako jarduerak zuzen gauzatzen

Idazkaririk,


direla ziurtatzeko, eta horrela, kontratua zuzen betetzeko. Kontratistak alatu jarduerekin lotutako kostu guztien ardura hartuko du.

39 BERME-EPEAREN AZKENEKO EGIAZTAGIRIA

1. Berme-epea bete aurreko hamabost (15) egunen barruan GHK-k izendatutako teknikariak edo teknikariek idatziko dute zerbitzuen prestazioaren eta zerbitzu horiek kontratuaren dokumentazioan jasotako zehaztapenetara izan duten egokitzapenaren inguruko txosten bat. Txosten hori aldekoa balitz, emandako behin betiko bermea bueltatuko da, kontratua behin betiko likidatuko, eta, dagokionean, egiteke dauden obligazioak ordaintzeko.
2. Txostena kontrakoa balitz, eta antzemandako akatsak zerbitzuen prestazioan izandako urritasunengatik balira, GHKri egoztekoak ez liratekeenak baina ondorio ekonomikoak sortuko lizkiokeenak horri, horrek izendatutako teknikariak/ek dagozkion jarraibideak aginduko dizkieten kontratistari, GHKri behar bezala konpentsatzeko edo bere balizko ardurak estaltzeko.
3. Epe hori igaro ondoren, kontratistak ez balu azaldutako urritasunak konpondu, GHKri ez balio konpentsatu, edo bere balizko ardurak ez balitu estali, horren akta egingo du, eta GHK-k kontratua suntsitu ahal izango du kontratistari egotzi daitezkeen arrazoiengatik, bermea konfiskatuz eta dagozkion kalte-ordainengatik eman beharreko indemnizazioei kalterik egin gabe. Akatsak konponduko balira, klausula honen lehen paragrafoan aurreikusitako moduan jardungo da.

40 KONTRATUA HARTZEA

Kontratistak kontratua, segidako traktukoa dena, bete duela ulertuko da, hark zerbitzu osoa ematen joan ahala, kontratuaren baldintzen eta GHK-k nahi duenaren arabera.

Hilero, prestazioa jasotzeko ekintza egingo da, hileroko fakturazioaren arabera, eta dagokion adostasun-akta egingo da.

GHK-k zehaztuko du kontratistak egindako prestazioa kontratua gauzatzeko eta betetzeko ezarritako xedapenetara egokitzen bada edo ez, eta, dagokionean, kontratatuko prestazioak gauzatea eta hartzerakoan antzemandako akatsak konpontzea eskatuko du, SPKLTBren 307. artikuluan eta HAKLAOren 203. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Egindako lanak kontratatuko prestazioari egokitzen ez badira, kontratistari egotzi daitezkeen akatsen edo hutsuneen ondorioz, berariaz jakinaraziko da eta kontratistari aginduak emango zaizkio hutsuneak konpon ditzan. Konpontzen ez denean, GHK-k kontratistari egotziko dio ardura, eta ordaintzeko obligaziotik libre geratuko da edo ordaindutakoa berreskuratzeke eskubidea izango du.

Kontratua, luzapenak barne, bukatu eta likidatu ondoren, sei (6) hilabeteko berme-epea ezartzen da, hartzen den egunetik zenbatzen hasita.

Berme-epetan zehar egindako lanetan akatsak edo hutsuneak daudela egiaztatuko balitz, Kontratazio Organoak eskubidea izango du kontratistari akats edo hutsune horiek konpontzea eskatzeko.

Berme-epaia bukatzen bada GHK-k aurreko paragrafoetan aipatutako eragozpen edo denuntziaren bat formalizatu gabe, kontratista egindako prestazioaren erantzukizunetik aske geratuko da.

Kontrataturako prestazioa betetzearen inguruan ematen diren oharra entzunarazteko eskubidea izango du kontratistak.

KAPITULUA DIZIPLINA-ARAUBIDEA

41 EZ BETETZEA

Adjudikaziodunak kontratua betetzen ez badu, GHK-k zigorrak ezarriko ditu. Kontratua ez betetzea hiru mailatan tipifikatuko da: oso larria, larria eta arina.

41.1 Ez-betetze oso larria.

Honako hauek izango dira ez-betetze oso larriak:

- Zerbitzuak ematen hasterakoan atzerapena izatea, alegia, aurreikusitako datatik hasi eta hilabete baino gehiagoko atzerapena izatea, GHK-k bere gain hartutako ezinbesteko arrazoiengatik ez bada.
- Zerbitzuaren prestazioa geratzea edo etetea, GHK-k bere gain hartutako ezinbesteko arrazoiengatik ez bada.
- Zerbitzu bat gauzatzekoan salatutako irregulartasun batean ez esku-hartzea edo ez hori ez zuzentzea.
- GHK-k, zerbitzuen ordenaren, formaren eta erregimenaren inguruan agindutako arauak ez betetzea, eta orokorrean, zerbitzuen prestazioa arautzen duten eta GHK-k zehazten dituen arauak ez betetzea.
- Enpresa kontratatzaileak, kasu honetan GHK-k, eska ditzakeen datuak eta informazioa ezkutzea edo faltsutzea, edo datu eta informazio horiek ez ematea ezarritako protokoloaren edo egutegiaren barruan.
- Hitzemandako kamioi kopurua ez izatea.
- Fluxu desberdinak garraiatzeko garbitasun-protokoloak ez betetzea.
- Hiru ez-betetze larri pilatzea.

2015 MAR. 3 1


(e)an onartua
Aprobado por Consejo de Administración.

Honaini,

2015 A.P.I.
ABR. 08



Idazkariak



41.2 Ez-betetze larriak.

Honako hauek izango dira ez-betetze larriak:

- Zerbitzuen prestazioa sistematikoki atzeratzea.
- Eskatutako ordutegiak ez betetzeko ohitura izatea, eskainitako bitarteko materialak ez erabiltzea edo bitarteko material horiek egoera txarrean mantentzea.
- Eskaintzan adierazitakoa baino giza-baliabide edota baliabide material kopuru edo kalitate baxuagokoa erabiltzea.
- Fluxu berdinen garbitasun-protokoloak ez betetzea.
- Jarduketa-epeak justifikatu gabe ez betetzea, hitzemandako aldizkako informazioa unean-unean ez aurkeztea.
- GHKren zerbitzu teknikoekin lankidetzak eskasa izatea.
- Hiru falta arin pilatzea.

41.3 Ez-betetze arinak.

Ez-betetze arinak izango dira zerbitzua gauzatzeko ezarritako denborak eta lehenago aurreikusi gabeko gainerako beste denbora guztiak ez betetzea, zeinak, nolabait, plegu honetan ezarritako baldintzak kaltetzea suposatzen duten.

Dagokion zigorra alde batera utzita, zerbitzu eraginkorraren ordutegiak ez badira zehatz-mehatz betetzen hondakinak kargatzeko mugimenduekin (kasu bakoitzean zehazten direnekin) batera antolatzeke, GHK-k zerbitzuaren prestazioagatik adjudikaziodunari ordaintzen dion dagokion prestazio ekonomikoa automatikoki murriztuko da. Murrizten den zenbatekoa kalkulatu da zerbitzu-orduaren kostuaren kalkulua oinarri harturik, non emandako zerbitzuaren ordu bakoitzeko kostu guztiak jasotzen diren.

42 ZIGORRAK

42.1 Zigorren erregimena.

- Ez-betetze arinen ondorioz 300€tik 1.000€rainoko zigorra ezarriko da.

2015 MAR. 31

..... (e)an onartua
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2015 A.P.I.
ABR. 09

Idazkariak

- Ez-betetze larrien ondorioz 1.001€tik 10.000€rainoko zigorra ezarriko da.
- Ez-betetze oso larrien ondorioz 10.001€tik 60.000€rainoko zigorra ezarriko da.

Hiru ez-betetze larri pilatu ondoren, GHK-k eskubidea izango du kontratu-harremana eteteko adjudikaziodunarekin.

Era berean, zerbitzua eteten bada, edo zerbitzuari eragiten dioten irregulartasun larriak badaude, GHK-k eskubidea izango du kontratu-harremana eteteko adjudikaziodunarekin, eta hirugarrenengana joan ahal izango da kontratatutako zerbitzua bermatzeko. Kasu honetan, GHK-k eskubidea izango du dagozkion legezko ekintzak hasteko.

GHK-ko zerbitzu teknikoek eta administrazio-zerbitzuek zehaztuko dute adjudikaziodunak egindako ez-betetzeen larritasuna, baita zigorra eta horren kopurua ere. GHK-k, ezarritako zigorra jakinarazi ondoren, enpresa adjudikaziodunari eta zigortuari egindako ordainketetatik kenduko dira kopuru horiek.

42.2 Zigorren mailaketa

GHK-k, zigorrak ezartzerakoan, ez-betetzearen larritasunaren eta ezarritako zigorraren arteko behar bezalako egokitasuna mantendu beharko da, eta mailaketan honako irizpide hauek zaindu beharko dira: (i) ez-betetze mota; (ii) nahitasuna egotea; (iii) sortutako kalteen izaera; (iv) berrerortzea, urtebeteko epean izaera berdineko ez-betetze bat baino gehiago egiteagatik eta (v) kontratistak lortutako onura.

42.3 Zigorrek eta hertsapen-izunak eguneratzea

Plegu honetan aurreikusitako zigorraren eta hertsapen-izunen zenbatekoa urtero eguneratuko da, Estatu mailako KPIaren arabera, edo autonomia erkidegokoaren arabera, hori txikiagoa izango balitz.

VI. KAPITULUA: KONTRATUA AMAITZEA.

43 KONTRATUA AMAITZEA.

Zerbitzu-kontratu hau bete edo suntsiarazi ondoren amaituko da.

43.1 Kontratuaren betetzea.

Kontratuaren amaituko da kontratistak kontratu honen xede diren prestazioak erabat betetzen dituen amaituko da, kontratuaren dokumentuan ezarritako baldintza guztiak zainduz eta GHKren gogoia betez, Plegu honen 4. klausulan ezarritako

2015 MAR. 31

(e)an onartua
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2015 AB. 09



Idazkaria,

epearen barruan, edo, dagokionean, kontratuaren gainean adostutako luzapenen edo murrizketen barruan.

43.2 Kontratua suntsiaraztea.

Zerbitzu-kontratua suntsiarazteko kausa izango dira SPKLTBko 223 eta 308. artikuluetan ezarritakoak, eta, oro har, kontratu-obligazioak ez betetzea, Kode Zibileko 1124. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kontratua aurretiaz suntsiarazteak honako ondorioak izango ditu:

- Kontratua bi alderdiak ados jarrita suntsiarazten denean, alderdi bien eskubideak GHK-k eta kontratistak balio osoz onartutakoari egokitu behar zaizkio.
- Kontratua kontratistaren ez-betetze errudunaren ondorioz suntsiarazi bada, GHKri eragindako kalte-galerak konpentsatu egin beharko dizkio, jarritako bermearen zenbatekoa gainditzen duten neurrian. Dena den, kontratuaren prezioaren klausula penala finkatuko da.

Klausula honetan kontratua suntsiarazteko aurreikus den edozein kasutan, suntsiarazpen horrek automatikoki jardungo du, eta baldintza bakarra izango da GHK-k kontratistari jakinarazpen fede-emaille bat egitea.

Jakinazpen hori jaso ondoren, kontratistak berehala etortzeko obligazioa izango du GHKri emateko, eta bere eskura jartzeko, kontratuaren bidez une horretara arte egindako edo sortutako dokumentu guztiak, zeinak GHKren jabetzakoak izango diren.

Horretarako, exekuzio-egoeraren Akta idatziko da, zehaztuta gera daitezen GHK-k bukatuta eta entregatuta bezala eta entregatu gabe edo onartu gabe bezala onartzen dituen dokumentuak, baita dokumentu horiek ez hartzearen arrazoiak ere. Horrela, GHK-k kontratuaren exekuzioarekin jarraitu ahal izango du, bere kabuz, edo hirugarren baten bidez.

Hori guztia, dagokion kontratuaren ondorengo likidazio ekonomikoari kalterik egin gabe, ondoren ezarritakoaren arabera.

Klausula honetan aurreikusten diren arrazoiengatik, zein legalki bidezkoak izan daitezkeen beste arrazoiengatik, kontratua suntsiaraztearen ondorioz sor daitezkeen erantzukizun ekonomikoak kontratua suntsitu ondoren eta dagokion dokumentazioa entregatu ondoren likidatuko dira, eta hori ez da izango oztupoa GHK-k bere exekuzioarekin jarraitu ahal izateko.

2015 MAR. 3 1

..... (e)an onartua
Aprobado por: Consejo de Administración.

Hernani,

2015 A.P.
ABR: 09




Idazkaria,

Suntsitzen den edozein kasutan, kontratistak, hasiera batean, egin dituen lan guztien prezioa jasotzeko eskubidea izango du.

Kontratua suntsitzen bada kontratistari egotzi daitekeen edozein arrazoiengatik, GHKren alde sortuko da kontratuaren prezioaren % 20ari dagokion kopuru baliokidea, dagozkion kalte-ordainen indemnizazioez gain, eta izaera metagarriarekin.

Kopuru horiek biak behin betiko bermetik eta kontratistari ordaindu beharreko prezioetik kenduko dira, eta soberakinik egonez gero, dagokion erreklamazioa egin beharko da.

Klausula honetan aurreikusten ez den guztian, SPKLTBko 224, 225 eta 309. artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da.

Idazkaririk,


I. ERANSKINA. ARDURAPEKO ADIERAPENAREN EREDUA

.....jn./and., NAN zk., bere izenean edo enpresa honen
ordezkari bezala (aipatu ordezkariak ahalmenak: administratzaile bakarra, ahalduna).
....., eta IFK zk.....

ADIERAZTEN DU

- Berak zein ordezten duen enpresak Administrazio Publikoarekin kontratatzeko gaitasuna duela, jarduteko gaitasun osoa izanik, SPKLTBren 60. artikuluan aurreikusitako inolako baldintzapean ez baitago. Bereziki, berariaz aitortzen du lanean segurtasun eta osasun gaietan arau-hauste oso larriagatik izaera irmoko zigorrik jaso ez izana, SPKLTBren 60.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.
- Zerga-obligazioetan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean dagoela, indarrean dauden xedapenek ezarri bezala eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko 13. eta 24. artikuluek aurreikusten duten neurrian (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua).
- **Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda dagoela** kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, eta ez duela bajarik eman zerga horren matrikulan.

Eta jasota gera dadin eta dagozkion eraginak sor ditzan, ardurapeko adierazpen hau sinatzen du Hernanin, 2015ekoaren.....(e)an.

Sin.: (ENPRESAREN ZIGILUA)

[Handwritten signature]
Nazka Lak,

**II. ERANSKINA PROPOSAMENA GHK-REN SARRERA-ERREGISTROAN
ENTREGATZEKO EREDUA**

.....jn./and.NAN zenbakiarekin, bere izenean edo
..... enpresaren ordezkari gisa,IFZ zenbakiarekin,
etahelbidearekin, fax zk....., eta helbide
elektronikoa.....

ADIERAZTEN DU:

Gaurko(*)e(t)an, proposamena entregatzen dela **"SASITAKO
MANKOMUNITATEAREN HIRI-HONDAKINAK GARRAIATZEKO ZERBITZU-
KONTRATUA"**ren lizitaziorako kontratazio-espediterako.

Hernanin, 2015eko.....ren.....(e)an

Sin.:

(Aurkezlearen sinadura)




2015 MAR. 31

Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2015 A.P.I. ABR. 09



III. ERANSKINA. ATZERRIKO ENPRESEN ADIERAZPENA

“.....jaunak/andreak,
helbidea.....
.....(e)n, NAN zk....., telefonoa....., posta-
e..... dituenak, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun
erabatekoaren jabe izanik, bere izenean
(edo.....
.....(e)n,
helbidea.....(e)n, eta
NAN edo IFZ [pertsona fisikoa edo juridikoa den kontuan izanda]
zk.....dituenaren ordezkaritzan), **“SASITAKO
MANKOMUNITATEAREN HIRI-HONDAKINAK GARRAIATZEKO ZERBITZU-
KONTRATUA”** prozedura negoziatu publikitatedunaren bidezko lizitazioan parte
hartzeko GHK-k egindako gonbita jasota.

ADIERAZTEN DU

h) Espainiako edozein esparrutako auzitegi eta epaimahaien jurisdikziopean jartzen dela, kontratua dela-eta sor daitezkeen zuzeneko edo zeharkako auziak jurisdikzio horren barne bideratzeko, dagokion atzerriko jurisdikzioari uko eginez.

2.- Europar Batasuneko ez den atzerriko enpresa bat izanez gero, Espainian sukurtsal bat irekita duela egiaztatzen duela, bere eragiketetarako ahaldunak edo ordezkariek izendatu dituela, eta Merkataritza Erregistroan izena emanda dagoela.

3.- Dagokion dokumentazioa gaztelaniara edo euskarara ofizialki itzulita aurkezteko konpromisoa hartzen duela, HAKLEOren 23. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Eta jasota gera dadin eta dagozkion eraginak sor ditzan, ardurapeko adierazpen hau sinatzen du n 2015ekoaren.....(e)an.

Sin.: _____



ADMINISTRAZIO KONGRESUAK

2015 MAR. 31

..... (e)an onartua
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2015 API: 09
ABR:



Idazkaririk

IV. ERANSKINA. JAKINARAZPENAK EGITEKO POSTA ELEKTRONIKOAK

.....jn./an
d, adinez nagusia, helbidea
..... eta NAN
zk.....-en izenean
eta gizarte-ordezkaritzan, egoitza
soziala.....
. eta IFK zk.

AZALTZEN DU


Eragin guztietarako, eta bereziki administrazio-dokumentazioaren akatsak konpontzeko eskaerak jasotzeko, honako helbide elektronikoa adierazten dira:

(Hainbat adieraz daitezke)

Dokumentazio- edo informazio-eskaerak aipatu helbide elektronikoetara bidaliz gero, plegu honetan adierazitako epeak, eta bereziki, Baldintza Administratibo Berezien Plegu zehaztutako administrazio-dokumentazioa konpontzeko epea zenbatzeari ekingo zaio.

Eta jasota gera dadin eta dagozkion eraginak sor ditzan, ardurapeko adierazpen hau sinatzen du n 2015ekoaren.....(e)an.

Sin.: _____

Idazkaririk,


V. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

“.....jaunak/andreak,
helbidea.....
.....(e)n, NAN zk....., telefonoa....., posta-
e..... dituenak, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun
erabatekoaren jabe izanik, bere izenean
(edo.....
.....(e)n,
helbidea.....(e)n, eta
NAN edo IFZ..... [pertsona fisikoa edo juridikoa den kontuan izanda]
zk.....dituenaren ordezkari izan), **“SASITAKO
MANKOMUNITATEAREN HIRI-HONDAKINAK GARRAIATZEKO ZERBITZU-
KONTRATUA”** prozedura negoziatu publikitatearen bidezko lizitazioan parte
hartzeko GHK-k egindako gonbita jasota.

ADIERAZTEN DU:

1º) Zerbitzua gauzatzeko konpromisoa hartzen duela, honako prezio unitarioen arabera (BEZ kanpo):

GAINERAKO ZATIKIA	BIOHONDAKINA		
<u>1. PREZIOA</u> LAPATX	<u>2. PREZIOA</u> LAPATX	<u>3. PREZIOA</u> FUNES	<u>4. PREZIOA</u> CAPARROSO
_____ €/Tn	_____ €/tn	_____ €/Tn	_____ €/Tn

Horrez gain, prezioari dagokion BEZa fakturatuko da.

2.) Prezioan kontzeptu guztiak sartuta daudela ulertzen da, edozein arlotako gainerako zergak, gastuak, tasak eta zergen edozein arloko arielak, baita kontratistaren mozkin industrialak ere.

3.) Kontratu hau eraenduko duten Baldintza Administratibo Berezien Plegua eta Baldintza Teknikoen Plegua ezagutzen dituela eta berariaz bere egiten dituela eta oso-oso onartzen.

4.) Berak ordezkatzeko duen enpresak betetzen dituela zergen eta Gizarte Segurantzaren arloan indarrean dagoen araudiak ezarritako betekizun eta obligazio guztiak.

Hernanin, 2015ekoaren.....(e)an.
Sinadura